

ARGIA



ZAHAR EGOITZAK
PANDEMIA GARAIAN

Isolamenduaren birusak jota

22-26. orriak

#2.704 | 2020 / 10 / 18 | 3,90 €



**Sahelgo basoen
miraria, zuhaitzetatik
jaten berrikasiz**

10 | NET HURBIL



**"Artzain
bakarraren
irudia mitoa da"**

12 | MIREN AIRE



**EAEko itunpeko
ikastetxeen
finantziazio publikoa**

34 | HEZKUNTZA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #256 HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ETXEBIZITZA COVID-19AREN GARAIAN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
RAUL BOGAJO / FOKU

Iritziak

- 17 | BALEREN BAKAIOA
- 18 | JUNE FERNÁNDEZ
- 19 | BEÑAT IRASUEGI
- 19 | LEIRE NARBAIZA
- 20 | IRATI TOBAR

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | ARGİ-KONTRA: ADELAIDE DARRASPE
- 58 | BERANDUEGI

DANI BLANCO



12 | MIREN AIRE

Artzaintzari ekiteko eta amaren etxean geratzeko hautuaz mintzatu zaio Miren Artetxe kazetariari: "Euskaldun sortzea bezala da; karga bat da, trabak besterik ez dira, baina, berriz sortuko banintz berriz euskaldun sortu nahiko nuke. Eta berriz emazte".

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Saheleko baso berrien miraria: zuhaitzei ugaritzen laguntzeko, zuhaitzetatik ere jaten ikasi

Pello Zubiria Kamino

22 | ZAHAR EGOITZAK COVID GARAIAN

Etxea kartzela bihurtu diete
Onintza Irureta Azkune

27 | HISTORIA | ALCOCERO DE MOLA

Erorien haran bat etxe ondoan
Ander Leon Nanclares

30 | POLITIKA | MIREN ARANOA

"Iturri bakarretik edanez, EH Bildu uniformizatzen ari dira"
Xabier Letona Biteri

34 | HEZKUNTZA

EAeko itunpeko ikastetxeen finantziario publikoa eta eskola-orduak lotu ditu STEILASen ikerketa batek

Mikel Garcia Idiakez

36 | EUSKARA | MARITXU GOYHENECHÉ

"Belgikan erraten dute pazienteen artatzea ama hizkuntzara egokitu behar dela"

Onintza Irureta Azkune

42 | KULTURA | PANTX RECORDS

Walter Benjaminen azken orduak
Aritz Galarraga

46 | KULTURA

Krasner eta Clark bidea urratzen
Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Eizaguirre, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olosola, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Lortu duk, Pavlos!

Antifaxismoaren garaipen historikoa, bost urteko epaiketaren ondoren. Egunsenti Urrekarako buru Nikolaos Michaloliakos eta alderdi neonaziko 67 kide gehiago zigortu dituzte. Greziako parlamentuko hirugarren indarra izan zen alderdia, ofizialki, erakunde kriminala da egun. Epaiketa berean Egunsenti Urrekarako jarraitzaile Giorgos Roupakias zigortu dute 34 urteko Pavlos Fyssas "Killah P" rap abeslaria hiltzeagatik. Irudian: "Lortu duk, Pavlos!" adierazi du bere ama Magda Fyssas epaia jakin berritan, pozarren.

📷 A. KONSTANTINIDIS ✍️ AXIER LOPEZ





Independentziarekin lerratuta

DANI BLANCO



2018an bi ertzainek salaketa jarri zuten ARGIAko Lander Arbelaiz kazetariaren aurka Donostian hizkuntz eskubideen urraketa batez informatzeagatik, haien aurkako iraintzat jota. Epailearen aurrean deklaratu ostean, kasua artxibatzea erabaki zuten Donostiako Epaitegiek, baina ertzain batek erabakiari errekurtsioa jarri eta mailaz igo zuen salaketa. Gipuzkoako Auzitegiak ARGIAri arrazoia eman dio eta informatzeko eskubidea gailendu da.

Ertzain batzuek, enegarrenez, informatzeko eskubidea auzitan jarri dute. Hori bere horretan larria da, baina kasu honi euskarafobia gehitu behar zaio. 22.125 eta 23.044 ertzainei ez zaie gusatu hizkuntz eskubideen urraketa baten aurrean hainbat lagun isilik geratu ez izana: euskaraz hitz egiteko eskaerari eutsi zion Eneka Alvarezek eta Poliziaren jarduna espazio publikoan grabatzeko eskubideari eutsi zion ARGIAko kazetariak. Ahaztu zaie nonbait, herritarren zerbitzura eta ordainpean dagoela Polizia, eta herritarren kritika publikoak jasotzea beren lanaren barruan dagoela, zenbait epaik ebatzi duten gisara.

Eta, berriz diogu, ez gara esaten nekatuko: Polizia grabatzen jarraitu behar dugu. Gardentasun ariketa izateaz gain, herritarrok gure burua babesteko dugun bide bakarra delako askotan. Ala, norbaitek uste ote du bideorik grabatu eta zabaldu ez bagenu, epaiketara eramango gintuztenik? Polizia batzuek ez dute beren lan publikoaren ispilurik nahi, Mozal Legearen ikuspegi zigortzailearen epelean erosoago bizi dira. Eta horregatik ez dugu ahazten, egiazko protagonistak, Eneka Alvarez, euskaraz bizitzeko eskubideari eutsi zion herritarra, Mozal Legea baliatuta isundu dutela ertzain horiek beraiek.

Berdin izan die Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, 400dik gora kazetarik, euskaltzalek, hedabidek eta eragilek esandakoa. Baita Ertzaintzaren goi karguek ere, publikoki barkamena eskatu zutenean.

PIXKA BAT ES MULTA?

Galdera da, erakundeek zertarako eskatuko diete herritarrei *Ahobizi* izateko ahalegina egiteko, ahalduztzeko, hizkuntzari eusteko, gero, oinarrizko eskubideak babesteko ardura dutenak badira askotan eskubideak urratzen

dituztenak? Tamalez, asko dira azken aldian euskaldunen aurka gertatutako halako erasoak.

Ertzainek euskaraz jakin behar dute. Ertzainek hizkuntza eskubideak bermatu behar dituzte. Kanean, ertzain etxean eta epaitegietan. Haien ardura da. Lehen mailako eta bigarren mailako pertsonarik ez badugu nahi, behintzat. Eta edozein ardura publikotatik kanpo beharko luke euskaraz artatua izateko eskaerari mehatxua erantzuten dion funtzionario orok.

Nork aukeratu du beste garai bati dagokion polizia eredu opaku hau? Bada garaia herritarrok gai honi buruz hitza eta erabakia izateko.

Hala ere, gaurkoa ere bada hizkuntzari eutsi eta espaloitik ez dela jaitziko ongi barneratuta duen komunitate aktiboa zoriontzeko eguna. Eskubideak, baita hizkuntz eskubideak ere, praktikan borrokatzen eta irabazten dira.

Eta kazetaritzaren ikuspegitik, argi dugu gure aurkako hau ez dela ez bakarra ezta agian azkena izango ere. Gu zorteko sentitzen gara, ez baitira gutxi izaten halako erasoen aurrean bakar antzean geratzen diren kazetari eta herritarrek. ARGIA, aurreko beste kasuetan bezala, argi dugu zein den gakoa: hedabidearen aurkako eraso gisa ulertu eta hala jokatu dugu amaierara arte.

Gure ustez kazetaritzak librea behar du, kritikoa, eta badakigu horrek deserosotasunak sortzen dituela batez ere boterean daudenengan. Horretarako ezinbestekoa da loturarik ez izatea kazetaritzatik oso bestelako interesak dituzten banku, multinazional edo alderdiekin. Gurea da garaipena, langileona eta komunitateko kideena delako ARGIA. Hori bezain simple, hori bezain garrantzitsu.

Elkar babesten jarraituko dugu. Kazetaritza independentea, adierazpen askatasuna eta euskaraz bizitzeko eskubideak bidelagun. Lerratuta gaude. Gure komunitatearekin eta balore eraldatzaileekin lerratuta. Eta Mozal Legearen aurkako auzia irabazi genuenean genioen bezala: Isiltzen denak zorionik ez du. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

Bizimodu bikoitza



ARITZ GALARRAGA

Santi Leone adiskideak idatzi du Terenci Moixek inguruan zuen mundua kritikatzeko zuela eta, aldi berean, haren konplizitatea behar zuela: mundu literario katalana, lehen fa-sean, eta Espainiako farandularen mundua, bigarren. “Uda honetan, nerabegaroko mitoa izan nuen Moixen ipuinak irakur-rriz ohartu naiz orduan ikusi ez nuen haren alde batez: izan zen gauza guzietan gainera, Moixek bere kultura, itogarria zelakoan, utzi zuen idazlea ere izan zen”. Haren liburu interesgarrienak katalanez idatzitakoak izan arren, *La torre dels vicis capitals* (1968), *Món masclé* (1971) edota *Terenci als USA* (1974) lanekin garaiko literatura katalana irauli arren, aski ondo ulertzen dut bere kultura –bere kulturetako bat?– utzi izana, itogarria zela-koan. Nori ez zaio pasa egun batzuetan –klaro, arazoa da egun horiek eguneroko bilakatzen hasten zaizkizunean–.

Ingeborg Bachmannek ere Vienarekin eta, oro har, Austria-rekin, maitasun-gorrito harremana izan zuen beti, Idoia Santa-mariak kontatzen digu berak euskaratutako *Aldibereko* narrazio bildumaren hitzaurrean. Sorterriaz gain Parisen, Londresen, Berlinen, Zurichen bizi izan zen, luzeen Erroman, bizilekurik egonkorrena, bertan hil zen arte 1973an. Italiako hiriburuan bizitzeak askatasuna ematen zion, “bizimodu bikoitza egiteko aukera”, ze ideia iradokikorra. Merezki du esan bezala ekartzea: “Erromako nire lan-gelan sartu bezain laster, Vienan nago, ez Erroman. Bizitzeko modu nekagarri samarra da, eskizofrenikoa beharbada. Baina hobeto nago Vienan Erroman bizi naizelako hain zuzen, distantziarik gabe ez bainintzateke gai izango lan egiteko”. Hitzez hitz sinatuko nituzkeen hitzak. Eta liburu osoa da aberriari, erbesteari, hizkuntzari, identitateari buruzko haus-narketa mamitsu bat, gaurkotasunik batere galdu ez duena. Bai-na bizimodu bikoitzaren errebelazioetatik bakarrik, luzaz atxiki-ko dut maiteenen artean. ●



“KALEAN ERAKUTSITAKO INDARRA EPAITEGIETARA ERAMATEKO GARAIA DA”

EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA ETA ZALDIBAR ARGITU

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eta Zaldibar Argitu plataformak iragarri dute herri akusazio bezala aurkeztuko direla Zaldibarko zaborteziaren hondamendia ikertzeko abiatu den auzian. “Herri konpromisoagatik eta gertaeraren larritasunagatik, herritarren ahotsak epaiketara presente egon behar du, interes orokorraren alde egingo duen begirada batetik”. Epaiketara izango dituen gastuei aurre egiteko diru-bilketa abiatuko dute. **2020/10/06**



EKONOMIAREN TALAIAN

Negozio txikietan ere langileak ari dira



JUAN MARI ARREGI

Covid-19ak eragindako krisi ekonomiko, laboral eta sozialak agerian utzi ditu milaka negozio txiki, berriz irekitzeko aukerarik gabe atekatu xten ari direnak; dozenaka mila lanpostu galdu dira horrela. Agintari eta politikariek sarritan diote: “Ez dugu inor atzean utziko”, baina zoritxarrez ez da egia. Sindikatuak eta gizarte mugimenduak normalean gehiago arduratu eta mobilizatzen dira enpresa handi eta er-tainekin edo sektore publikoekin.

Enpresa handietako eta sektore publikoetako langileen ordezkariak mobilizatzeko, komunikatzeko eta medioen arreta pizteko gaitasuna dutenez, mundu guztiak ezagutzen du haien egoera, hala nola ITP, Gestamp, Gamesa, Trenasa, Tubacex, Deustuko Matrizeriak, GT, La Naval edo sektore publikoena, hezkuntzakoa eta osasungintzakoa kasu. Hala ere, beren zerbitzura lan egiten duten milaka pertsona gehiago ere badaude (laguntzailak, azpikontrata, hornitzaileak, ostalaritza zerbitzuak, garraioa...), krisiaren ondorioz enplegua galtzen ari direnak.

Horren aurrean, politika sozial integratzaileak eta etorkizuneko ikuspegia dutenak bilatu beharko lirake. Egoera honek iraun eta Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak indarrean dauden bitartean –baita aurrerago ere–, administrazioek aprobetxatu beharko lukete langileak pertsonalki gaitzeko bizitza duina izan dezaten, bereziki gazteenek.

Manpower-Group aholkularitzaren arabera, 2019an Espainiako Estatuan –Frantziako Estatuko daturik ez dugu eskura– betetzen zailenak ziren eskuzko lanbide kualifikatuak hauek ziren: argiketariak, soldatzaileak, mekanikariak, arotzak, igeltseroak eta iturginak. Unibertsitatetik igarotzen direnetako asko langabezia-poltsak betetzen dituzte edo erbesteratu egin behar izaten dute. ●

ANALISIA



SARE

Arkauz, Eizagirre eta Jaioren aurkako polizia operazioa

ARGIA

Urriaren 5ean Kepa Arkauz, Ekhiñe Eizagirre eta Imanol Jaio atxilotu zituen Guardia Zibilak. Madrilgo Tres Cantoseko kuartelean atxilotuta eduki ziztuzten eta hurrengo egunean jaso zuten euren abokatuen bisita, izan ere, atxilotuta egon arren ez ziren inkomunikatuta egon. Ismael Moreno Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aurrean deklaratu ondoren aske geratu dira.

Polizia operazioaren jatorria Ertzaintzak 2019an Arraia-Maeztun (Araba) aurkitutako ETaren zulo batean dago. Hamar urte baino gehiago zeukan materiala zegoen gordeta zulo horretan, baina hala ere, Moreno epaileak Arkauz, Eizagirre eta Jaioren aurkako atxiloteta-autoan ustez “lehergailuak edukitzeagatik” egin-dako delitua aipatzen du.

Kepa Arkauz arrasatearra 2013ko maiatzean atxilotu zuten, “ETako aparatuko logistikoko kide izatea” leporatuta. 2014an epaitu zuten, Parisen, Julien Mendizabal eta beste lau presorekin batera. Eizagirre 2013an atxilotu zuten Frantziako ETarekin lotura zuelakoan, eta lau urtez egon zen preso; 2017an Espainiaratu zuten, hango zigorra beteta. Baldintzapean aske geratu zen orduan. Imanol Jaio iheslari ohia da. Abadiñotarra da sortzez, baina Lapurdin bizi zen. Naiz-en arabera, maiz bidaiatzen zuen Irunera, eta bertan atxilotu du Guardia zibilak. Atxilotu-etuak miatzeari ekin dio Guardia Zibilak.

MOBILIZAZIO UGARI

Atxiloteta “iraganera” itzultzea dela azpimarratu du Sarek eta hainbat herritan mobilizazio eta manifestazioak egin zituzten hiruen askatasuna eskatzeko, tartean Zarautz, Abadiño, Ziburu eta Arrasaten. “Konponbide garaia da, ez akusazio zaharkitu eta korapilatsuen baitan espetxeak betetzen jarraitzekoa”, adierazi du herritarren plataformak. ●

Amiantoak hildako langile baten birika izoztuak

URKO APAOLAZA AVILA

CAFek asbestosiak jota hildako langile baten senideak indemnizatu beharko ditu, bere biriketan amianto arrastoak aurkitu eta gero. Enpresak helegitea jarri zuen baina Donostiako lan arloko 2. Epaitegiak 133.665 euro ordaintzera zigortu du.

IZOZTUTAKO BIRIKAK

2008an hil zen Celestino Tolosa, Irungo CAFeko lantegian urte mordoa lan egindakoa galdaragile bezala. Hil ondoren bere birikak izoztu zituzten eta ia hamar urte geroago, 2017an, Santanderreko ospitalean egindako frogatik batzuen bidez jakin zuten asbestosiak jota hil zela, lanean erabilitako amiantoaren ondorioz.

BORROKA LUZEA

Senideek ibilbide luzea egin dute epaitegietan barrena. 2018an EAEko Auzitegi Nagusiak ebatzi zuen asbestosia laneko gaixotasun bezala onartu behar zela eta ondorioz, orain, Donostiako lan arloko 2. Epaitegiak bere familia, alaba eta alarguna indemnizatzen zigortu du Beasaingo tren enpresa, 133.665 euroekin, CAFek "segurtasun eta higiene arautegi zabala urratu" zuelako. Familiaren hitzetan, azken pauso bat baino ez da falta dolauekin amaitu dezaten: "Enpresak barkamena eskatzea".



ANE PIKAZA


55. DURANGOKO AZOKA BEREZIA IZANGO DA

DURANGO. Durangoko Azokaren aurtengo edizioaren xehetasunak eman ditu eza-gutzero Gerediaga elkarteak (irudian, kartela). Argitale-txeen eta diskoetxeen erakusmahairik ez da egongo, eta salmenta puntu fisikoa saltoki digitalarekin ordezkaturiko dute. Denda digitala abenduaren 5etik 8ra egongo da martxan. Zuzenekoak eta liburu aurkezpenak dago-kionez, izango dute tokirik. Hori bai, bertaratzeko asmoa duenak aurrez eman beharko du izena. Streaming bidez ere jarraitu ahalko dira.

KLIMA ALDAKETA

0,63

gradu zentigradu beroagoa izan da aurtengo iraila, batez bestekoarekin alderatuta. Hala, 2020ko iraila historiako bost irail beroenen artean sailkatu da munduan eta Europari dagokionez, erregistroak daudenetik beroena izan da. Datu hau gehitu behar zaie bederatzi hilabetez izandako baso-suteei eta 2005az geroztik inoiz izan den hurakan-sasoirik bortitzenari.



EITB. Andoni Aldekoa izango da EITBko zuzendari nagusi, EAJ eta PSEk hala adostuta. Iñaki Azkunaren alboko izan zen urte askoan Bilboko Udalean eta Iñigo Urkulluren exekutiboan ere gertuko lanak egin izan ditu komunikazio aholkulari gisa.



EUSKADI SARIAK. Karmele Jaioren *Aitaren etxea* nobelak irabazi du euskarazko literaturaren kategorian. Haur eta gazte literaturaren alorrean, Iñigo Astiz saritu dute *Joemak eta polasak* lanarengatik. Miren Asiain ere saritu dute, lan literarioen ilustrazioen kategorian.



MINTZALAGUNAK. Mintzapraktikan aritzeko lehenengo izen-emate deialdia abiatu da urrian. Euskaltzaleen Topaguneak azaldu duenez, 7.000 lagun baino gehiagok osatzen du mintzalagunen komunitatea, 21 herri eta eskualdetan. Euskal Herri oso-za zabaltzeko nahi dute egitasmoa.

SAHELEKO BASO BERRIEN MIRARIA: ZUHAITZEI UGARITZEN LAGUNTZEKO, ZUHAITZETATIK ERE JATEN IKASI

Oihanak atzeraka ari dira mundu osoan. Oso-osoan? Ez, badira txoko batzuk non zuhaitzak ugaritzen ari diren haiekiko harremana aldatu duten baserritarren lanari esker. Hauek ikasi behar izan dute arbolak ez direla laboreen etsaiak, zuhaitz eta zuhaixken esku dagoela lurzorua eta biodibertsitatearen oparotasuna hein handi batean eta –barneratzen are zailagoa– gizakia basotik ere elika daitekeela. Ikasi baino, mende luzez ahantzarazitakoa berrikasi.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Basoak kiskaltzen ari diren arren, zuhaitzak laborantza eremuetan zabaltzen ari dira agroforesteriak aurrera egin ahala, titulu horrekin plazaratu du ikasketa-bidai arriskutsu bezain ederraren kronika Patrick Worms Munduko Agroforesteria Zentroko kideak *Mongobay* hedabidean. Worms Nigerre-ra joan da –Niamei hiriburutik abiatuta gerra eremu den Zinder inguruetaraino arriskatzu– bere begiz frogatzera agroforesteriak zer lortu dezakeen basamortu idorrean. Jakina baita Sahel eskualdean desertua baso berriz osatzeko ahaleginak emaitza erakusten duela Nigerren, beste eskualde batzuetan ez bezala.

Agroforesteriaren oinarria da elkarrengandik nahastuta edukitzea bai zuhaitz, arbola eta zuhaiskak eta bai nekazaritzan klasikoak diren laboreak eta abereak, horrek mesede egiten dielakoan emankortasunari bezala biodibertsitateari eta klimari. Gero eta gehiago aipatzen da agroforesteria –hainbat formula ezberdinetan– mundu aberatsean, AEBetan bezala Australian edo Europan, baina Afrikako Sahelen erakutsi du teknika horrek bere ahalmen handia, Wormsek kontatu duenez.

Nigerrek dauka, ziurrenik, munduan gizakiak sortutako parke eremurik zabalena. 1970eko hamarkadako gosete beldurgarrien ostean 9 milioi hektarea oihaneztatu dira zuhaitz txiki arantzatsu baina eraginkorrez eta horien babesean dauden soroek lehen baino milioi bat tona labore gehiago ematen dute.

Nigerreko mirakulua *Faidherbia albida* deitzen da eta berezitasun batek egiten du urrezko: airetik hartutako nitrogenoa lurrean finkatzen duen zuhaitz lekaledun honen *ordularia* inguruko beste landareenaren alderantziz mugitzen da, loaldian dago eurite aroan gainerako landareei konkurrentziarik egin barik eta berdetzen da 10 hilabeteko lehorte luzea berriro hastean. Berorik handie-nean, bere sustraiek oso sakoneko urak bilatzen dituzte eta hostoek gerizpea eskaintzen azpian erne diren beste landare eta laboreei. Horra zergatik Sahelen, faidherbiak egon ahal ez egon, jokatzeko den lurzorua soro ala basamortu izatea.

1970etako lehorte handiak eragindako gosean baserritarrek faidherbia eta gainerako zuhaitzik gehienak ebaki zituzten, egurretarako ez bazen sutarako. Halako batean euriak itzuli ziren baina soroak antzu geratuak ziren, babesik gabe azaleko gai organikoa galduta. Nazioarteko erakunde humanitarioek milaka zuhaitz landatzea abiarazi zuten orduan, baina honek ere ez zuen funtzionatzen, lurrik ezagatik, artzainen eta nekazarien presioagatik... eta idorragatik. Hala zihoazen alferrik galtzen Saharari *gerriko berdea* ezarri nahian nazioartearen finantziarioz landatutako zuhaitz-landare ia guztiak.

Porrot askoren ostean, Tony Reinaudo australiar kooperanteak asmatu zuen soluzioa, gaur mundu osoan azaldu eta aplikatzen dena: ohartu zen aspaldi ebakitako zuhaitzak artean bizirik zeude-

la, sustraietan bizi zirela *lurpeko oihan* bihurtuta. Reinaudok ikasi eta besteei erakutsi zien eraitsitako basoa berpizteko arbola berriak landatzea baino hobe zela ebakitzearen poderioz sastraka bihurtutakoei egoki kimatuz laguntzea. Eta, batez ere, pazientzia handiz lortu zuen herriz herri nekazari eta artzainek elkarren artean hitzartzea nola uztartu beren beharrak eta pixkanaka biziberri-tuz eta zabalduz zihoazen baso txikienak, erabilerak txandakatuz, eremuak tarteka hesituz, sutarako egur mozketak arautuz... Horra Baserritarrek Kudeatutako Birsorkuntza Naturala, FMNR ingelesezko sigletan.

ZORIONEKOAK, FRUITU GAITZETSIAK

Baina Patrick Worms agroforesteriaren hurrengo etaparen bila zihoan, eta Zinder herrian aurkitu du, Nigeriarekin mugan: Sahara Sahel Foods konpainia txikia. 1980ko hamarkadan bertako natura ikertzerak iritsi ziren Arne eta Betta Garvi senar-emazte suediarrek, helburu garbi batez: “250.000 landare ezagutzen dira munduan, baina horien %20tik dator gure janariaren %90. Guk sinesten dugu oparotasunaren giltza daukatela probesten ez diren zuhaitz eta sastraka jangarriek, Edengo paradisuaren altxor galduek”.

Orain Josef Garvi semea eta honen emazte Renata ari dira –jihadisten gerri-llak iritsi zirenetik inguruetan geratzen diren atzeritar zuri bakarretakoak– Sahara Sahel Foods elikagai konpainia



SAHARA SAHEL FOODS

KONPAINIAREN MOZKINAK
SALGAI ZINDER HIRIKO KARRIKAN.
SAHELEKO SABANAKO LANDAREDIA
BERRESKURATZEA UZTARTU NAHI
DUTE ANTZINAKO ELIKAGAIAK
BERRIZ KONTSUMITZEAREKIN.
(ARGAZKIA: PATRICK WORMS)

txikian. Gurasoengandik ikasi eta ikusi dute naturak osasuna berrekuratu ahala jendeen eskuera jartzen dituela hainbat landare, fruitu eta ale primerako elikagai direnak. Baina aurretik –eta ez da erraza– herritarrek aldatu behar dituzte jangarria denari buruz dauzkaten kulturazko aurreiritziak, alegia, zeri deitzen zaion janari eta zeri ez.

Duela gutxi arte sabana izandako eskualdeotan jendeek milaka urtez baliatu zituzten lekuko landare, hazi, fruitu eta animaliak, etxekotuak bezala ehizakiak. Kolonizatzaileek –arabiarrek estreina eta europarrek geroago– ezarri zituzten jokabide berriak. Arabiarrek artatxikia ekartzeaz gain basoko fruitu eta haziak bazterrarazi zituzten, animalientzako bazka izatera mugatuz. Frantziarrek ez zuten hori aldatzeko beharrik sentitu, europarrek ere bilakaera bera egin zu-

telako aurreko mende luzeetan, basokoa zen jakirik bildu eta kontsumitzea kasik kondenatuz.

Aldaketa tamalgarria, elikadura segurtasunaren ikuspegitik, jendeak edozein larrialdiren aurrean alternatibarik gabe geratu zirelako. Nazioarteko erakundeek kultur aurreiritzi berdinekin segitzen dute oraindik ere; esaterako, inguru batean goseterik baden diagnostikatzeko erreparatzen dute ea jendea hasi den kontsumitzen basoko elikagaiak. Edo, besterik gabe, herritarrei dei egiten dieteko pozoitsuak izan omen daitezkeen landareak ez jatera... nahiz eta, benetan, primerako elikagaiak izan.

Sahara Sahel Foodsek alderantzizko bidea egin du, jendeari eskatuz –eta erosiz– basoan bildutako bazterreko jakiak: Aduwa edo desertuko datilak (*Balanites aegyptiaca*), Gawasa (*Neocarya mac-*

rophylla) ezkurak, Marula (*Sclerocarya birrea*) aleak, Hanza (*Boscia senegalensis*) fruituak... Horiek kontsumorako produktu bihurtu eta ontziratuta saltzen ditu konpainiak. Komunikazio oso bat egin behar izan du herritarrei jakinarazteko jaki horien balioak. Adibidez, Hanza fruitua –nutrizio aldetik artatxikia bezain aberatsa dena– erabilera ezberdinetarako hainbat produktu bihurtzen dute: haragiarekin egindako zukua, barruko haziari ateratako esnea, gurina, olio, erremediotarako ukendua...

Zinderreko emakume askok jarduera honetatik eskuratutako dituzte beren kabuz irabazitako lehen sosak, soroko lanak gizonen kontua izanik, fruitu basati urrak biltzea andreen eta umeen bazter-lana zelako.

Basoa zabatzeko, basotik ere jan. Europan ere ikasi beharko dute. ●





ARTZAIN BAKARRAREN IRUDIA MITOA DA, BAKARRIK EZIN DA



Artzain izan nahi zuen txikitatik, eta artzantzaz bizi da duela hogeiturtetik hona. Kantuan aritzea gustuko du eta kantuan ari da etxean bezala plazaz plaza. Ez omen da bizitza idilikoa berea, baina ez omen litzateke beste inon eta beste ezertan zoriontsuago izanen. Urepeleko Iturribeltzia baserrian, goiz eguzkitsu honetan, ez zait zaila sinesten. Nahikoa lan dut nik, elkarriketan zehar, ez bera eta ez bere bizimodua erromantizatzen. Ez dakit lortu ote dudan.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

Beti nahi izan duzu artzain izan?

Nondik heldu zitzaizun gogo hori?

Aita artzaina zen. Artzain soil, lurrik gabekoa. Negua ardiekin pasatzen zuen etxetik kanpo, bazketan. Etxetik oren bat edo oren bat eta erdira bazen egiteko, baina bera han egoten zen, bakarrik. Gero udan Urepelera etortzen zen eta mendian egoten zen artaldearekin. Eta gertatzen zitzaidalarik amarekin eta ahizpekin aitaren ikustera joatea, beti momentu berezi bat zen. Gozamina zen aitarekin ardien gibelatik ibiltzea. Ez nuen lanbidea hurbiletik ezagutzen, baina nik betidanik, haur garai haietatik, pentsatu dut -eta erraten nuen- artzain

eginen nuela. Alta, gero ideiaz arrunt aldatu nintzen. Kolegioan, lagunene artean, ez nuen batere hori egin nahi gehiago. 18-20 urte artean berriz jin zitzaidan gogo hori.

Eta nola erabakitzen du batek hogeiturteterekin artzaingoan sartzea?

Ikasketa normalak segitu nituen, eta baxoa ukan eta gero fakultatean egon nintzen bi urtez, Euskal Ikasketak egiten, Baionan. Hasi eta bi urtera ohartu nintzen ez nituela gustukoak ez ikasketak, ez hiriko bizimoldea. Hor ikusi nuen dudarik gabe hori nahi nuela eta hori behar nuela: artzain izan. Ikusten nuen ene bu-

rua Urepelen, edo barnealdean, mendialdean, ziur. Hor erabaki nuen ardiekin hastea. Laborantzako formakuntza bat egin nuen, urte bat eta erdikoa. Eta handik landa ardi batzuk erosi nituen, aita beste andana bat utzi, eta horrela hasi ginen, Paxkal, ene alaben aita, eta ni. Zortzi urtez egon ginen artzain soil, aita egon zen bezala. Neguan bazketan, eta udan hemen, Urepelen, mendian.

Eta nolakoa izan zen hasiera hori?

Ardiak lortu eta lanean hasi nintzenean, arrunt kontent nintzen. Izugarri. Orain ere bai, baina, lehenbiziko urteetan, aments bat bizi nuen. Formakuntza egin

Miren Aire

UREPELE, 1976



Artzaina da, aita eta aitatxi bezala, eta bere amaren eta amatxiren sortetxean bizi da. Hainbat erabakirik eraman dute horretara. Ez denak errazak. Baina, bertsotan neurri baten barruan inprobisatzea jolasa den bezala, hertsaduren baitan nork bere bizimodua asmatzea ere askatasun bihur daiteke. Horretaz zer-bait badaki Miren Airek.

eta dirulaguntzak lortzea izan zen lehen lana. Laguntza horiek ez dituzte hain errazki ematen eta hori gabe neke da hastea. Horiek gabe ez nuen hasterik, eta paperak ukatea, artzain plantatzeko baimena erdiestea, dirulaguntzak lortzea... Izigarriko plazera, ohorea eta gozamena izan zen. Hor nintzen hasi hurbiletik ikusten zer zen artzaingoa, ordura arte ez bainekien. Lanbidea ez nuen ezagutzen. Eta hor nintzen hasi maitatzen ere. Zeren eta ordu arte maite nuen zer zen jakin gabe. Ordutik maitatzen hasi nintzen zer zen ikusi ondoan. Desberdin da. Hor hasten da gozatzen.

Artzain lana gogor bezala ikusia da, alta. Ardiei eta urte sasoiei lotua, bakantzarik gabea...

Nik uste dut lan hau hautatzen dela, bakarrik maite delakotz edo maitatuko dela pentsatzen delakotz. Ez da hautatzen artzain izatea lanbide bat hautatzen den bezala. Hautatzen da horren giblean ze bizimolde den badakigulakotz, edo pentsatzen dugulakotz. Horrek du gogoa pizten. Horretan hasi orduko nik hori atzeman nuen. Hori sentitu nuen.

Zer da hori?

Ez dakit nola esplikatu. Badu orain hogeitau urte pasa hori egiten dudala. Nahiz eta izan akidurak, kezkak, arrangurak... Goiz guziz iratzarri orduko burutik pasatzen zaidan lehen irudia eta asmoa, hori da. Ardiengana joateko esnatzen eta jaikitzen naiz. Beti, lehenbiziko segundo hori, oraino ere, plazer bat da. Eta lotura aipatu duzunez... Askatasuna zer den; bakoitzak badu bere definizioa. Ene inguruan anitzek uste dute artzain edo laborari izateak askatasun eskasa sortzen duela. Nik desberdin ikusten dut. Ez naiz batere askatasun eskasian sentitzen. Baina, batere ez e!

Gero, hemen, Urepelen, denak edo kasik denak hola bizi dira. Ez da bakarrik banintz bezala. Sistema bat da, gizarte batean. Azkenean, denak bezalakoa naizela sentitzen naiz. Ez desberdin. Eta sistema horretan izatea bera ere gozamen bat da. Elkarlan anitz bada, auzolana bada, eta horrek ere egiten du lanbide interesgarria ar-

tzainarena. Ez naiz batere damutzen lanbide hau hautatu izanaz. Joanago eta gutxiago.

Entzun izan dizut artzaingoa ez dela gogorrago emazte batentzat gizon batentzat baino. Baina, diferentziak badirela.

Pentsatzen dut, arrazoi bategatik edo besteagatik, gaitasun desberdinak ditugula emazteek eta gizonak, eta agian lanbide batzuk badira gaur egun emazteek errazkiago egiten dituztenak, eta beste batzuk alderantziz. Baina, bereziki lan hau, artzaingoa, ez dut uste gizon batek emazte batek baino errazkiago egiten duenik. Hori bai, uste dut artzain izateko osoki eta ontsa, ez litzatekeela bertze lanik edo bertze egitekorik izan behar. Egiazko artzainaren titulua eramaten duten gehienek ez dute besterik egiten. Artzain dira, eta besterik ez. Baina, ez dut ikusten artzainik laguntzarik gabe, eta itzalean lan anitz egiten dutenak badira. Ez dut hain zuzen atzematen. Hainbeste lan egiten duten emazteak badira, horiei esker dira artzainak eta horiek ez dute titulurik.

Izan liteke artzain norbera, laguntza hori gabe?

Nik badut laguntza. Ondoan ditut aita, ama eta alabak. Egia erran, hori gabe ezinezkoa litzateke enetako. Enetako eta besteendako ere ez. Behar da inguratua izan. Lehen bai eta orain ere bai. Orain plantatzen denak ere behar du laguntza eta sostengua. Bakar-bakarrik ezin da. Nik ez dut egiten bakarrik, eta besteek ere ez. Artzain bakar-tiaren irudia mito da.

Hainbeste lan egiten duten emazteak badira, horiei esker dira artzainak eta horiek ez dute titulurik"

Niretzat mito bat, Aire Ahizpak dira! Oroimena dudanetik, kantuan ari zarete herriz herri. Noiz eta nola hasi zineten kantuz?

Gu kantariak gara... edo, hobe erran, kantuz ari gara, betidanik. Hemen bertze anitz bezala, funtsean. Kantuz ari gara ohartu gabe ere hori gauza berezi bat dela. Hemen, etxean edo bestetan, jendeak kantatzen du. Gure baitan da. Gero plazan kantatzea, hori bertze gauza bat da. Gazte-gazteak ginen lehen aldikoz galdegin zigutelarik plazan kantatzea. Nik 16 urte nituen, eta ahizpa gazteenak, Paxkalinek, 10.

Kantatu genuen arrunt naturalki. Ma-kean egin genuen lehen kantaldia, herriko bestetan. Oren erdi bateko kantaldi bat eman genuen. Bospasei kantu. Eta handik fite bertze leku batera galdegin gintuzten, eta kasik oharkabean hasi ginen. Ez naiz oroitzen ere nola hasi ginen kantatzen plazetan. Gazteak ginen eta iduritzen zait beti hola izan dela.

1991tik kantaldiz kantaldi, kantu ezagun frango, eta lehen diskoa 2014an, *Bidexka* (Erroa). Ez zarete azkarrenak, komertzialki mintzatuz.

Guk ez dugu lan berezi bat egiten kantugintzaren inguruan. Kantuz ari gara, sinpleki. Nahi baldin badute han kanta dezagun, joaten gara eta ari gara kantuz. Besterik ez. Ez dugu publizitaterik eginen kantuz ari garelakotz han edo hemen. Diskoa atera genuen, bazelarik hogeitaz kantuz ari ginela. Eta ez genuen nahi! Aspalditik izan ditugu eskaintzak edo proposamenak, baina ez ginen horretan. Azkenean, Josu Zabala eta Mikel Markez etorri ziren guregana, egin behar genuela eta egin behar genuela... eta haiek konbentzitu gintuzten. Ez da helburu bat guretzako kantuz aritzea. Maite dugu, kantuz ari gara, eta besterik ez. Jendeak nahi dueno gu kantuz aritzea, ariko gara.

Punki batzuk zarete.

Bai eta ez. Ez diogu hainbesteko garrantzia ematen, ezagunak eta ezagutuak izateari. Baina kantatzeari bai. Gauza bat biziki berezia sentitu dut, adibidez, konfinamenduan. Uste dut ez nintzela sekula ohartua hainbeste. Aste horietan ez dugu kantatu, noski –eta geroztik ere guti, kantaldi bakarra eman dugu joan den astean–, eta zer hutsa! Zer falta egin didan ez kantatzeak. Baina, izugarria! Lehen aldia da gertatzen dela ez kantatzea hainbeste denboraz, eta hor sufritu dugu ez kantatzeaz plazetan. Ez elkarrekin kantatzeaz, azken batean.

Gainera, guk arrunt seriozki hartu dugu konfinamendua –ez dakit ontsa egin dugun ala ez– eta ez dugu batere elkar ikusi hiruek. Bakoitza bere etxean gelditu da, eta hasten nintzen kantatzen, hola, kantatzeko gogoia nuelako, eta ezin nuen kantua bukatu. Halako tristezia bat sentitzen nuen... Beste bien bozak eskas nituen, eta ezin nuen. Hiruen arteko harreman hori arrunt berezia da. Gurean kantuak egiten du ahizpatasuna, eta alderantziz.



Artzainei ez omen zaie zenbat ardi dituzten galdetzen. Baina, zuek zenbat kantaldi egiten dituzue urtean? Non aritzen zarete?

Ez hainbeste ere. Egiten dugu hilabete bat edo bi. Gero, neguan gutxiago. Neguan hilabete batzuk batere kantatu gabe pasatuko dira. Hegoaldean ari gara gehienik, orain. Iparraldean ezagutzen gaituzte! Nafarroan eta Araban ez hainbeste, baina, Bizkaian eta Gipuzkoan anitz. Eta hiri handietara joaten garelarik, bi mundu desberdin dira. Bilbon eta Bilbo inguruan, adibidez, badugu usaia kantatzeko, eta maite dugu hara joatea. Baina, Hegoaldea ez da bakarrik Bilbo edo Gasteiz, eta anitz kantatzen dugu herri ttipietan ere.

Usu kantatzen duzue, hain zuzen, Xalbadorrek, zuen aitatzik, Mixel zuen aitari igorritako bertso sorta. Aitak Ameriketara zen semea, etxera itzultzeko galdegiten dio, dena esan behar bada, xantaia emozional latza eginez.

Hori Euskal Herriko historia dela uste dut. Azkenean, ez dakit nola erran, Euskal Herria Euskal Herria baldin bada horregatik edo horri esker ere bada. Ikusten delarik ze atxikimendu den etxeari, sortetxeari... Ez dakit errazago den sortetxea uztea edo sortetxean gelditzea. Ene ustez ez da uztea ere hain erraz. Gelditzea ere ez da erraz. Baina, uztea erraz izan balitz utziko zen. Etxeak eta herriak oraindik baldin badira, laborantzan oraindik segitzen baldin badu eta etxeak oraindik beterik baldin badira, azkenean horri esker da ere. Gaur egun ez dakit zer den hobe. Baina, errealitate hori bada gaur egungoa ere. Bada hori. Eta nola!

Zu justuki, amaren sortetxean bizi zara orain... Nola bukatu duzu etxe hau betetzen, etxe honi segida ematen?

Ez nuen haste-hastetik pentsatu hemen bizitzea. Duela dozena bat urte izan zen. Hemen bi osaba ziren lanean, biak donado edo mutilzahar, eta erretretara



Iritziak

Krisialdi larriak eta ekonomia ereduaren aldaketa



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Krisialdi larri baten ostean aldaketa sakonak burutzen omen dira jendartearen antolakuntzan, batik bat ekonomia ereduaren. Aldaketa horiek jendartearen gehiengoaren hoberako izan dira batzuetan, okerrerako bestetan.

XIV eta XV. mendeetako izurrite beltzak Errenazimentua sustatu zuen, jendartean jauntxo feudalek zeukaten indarra errege absolutura igaro eta boterea zentralizatu zen, espantsio kolonizatzaileari bide emateko. XVII. mendeko izurritea Iraultza Industrialarekin lotu dezakegu. XX. mendeko gripe espainiarra I. Mundu Gerra ostean etorri zen eta izurritea gairatzearen garaiak “hogeigarren urte zoriontsuekin” bat egin zuen, non langileen eta aberatsen arteko arrakala ekonomikoa nabarmenki areagotu zen. Bide batez, jendarteko egonezina nabarmena zen Mark Blyth ekonomialari eskoziarrak dioen bezala, aplikatutako austeritate politikak nazismoari ateak ireki zizkiolako.

Ondorengo aldaketa esanguratsua II. Mundu Gerraren amaiekin eman zen. Gerrate ostean jendarteko arrakala ekonomikoa murrizten hasi zen eta 30 urtetako oparoaldia ezagutuko da Mendebaldeko ekonomietan. Alabaina, gerra aurretik Keynesek eta gerra garaian Beveridgek diseinatu zuten jendarteko ekonomia nola eratu. Horrela, gerra ondoren proposatutako politikak indarrean jarri ziren eta ongizate esta-

W. Buffetek zioen: “Egia da klase borroka badagoela, baina nire klasea, hau da, aberatsen klasea da gerra egiten duena, eta irabazten ari gara”. Zinez egia

tua garatu eta disfrutatzeko aukera izan zuen Mendebaldeko jendarteak. Beraz, lehen aldiz, krisialdi gogor eta sakon baten ostean jendartearen gehiengoak profintatu zen.

Gerora egon dira beste hainbat krisialdi ere. Nabarmenena 2008an hasi zen Uzkurdura Handia dugu, non finantza erakundeek porrot egin zuten eta estatuak horiek babestera eta sostengua ematera joan ziren. Jendarte arrakala ekonomikoa ikertu dute hainbat ekonomialarik, hala nola Pikettyk edo Stiglitzek. Ondorioztatu dutenez, jendarteko aberatsenen % 1en edo % 10en sarrerek etengabe gora egin dute eta anartean populazioaren % 50 txiroenei sarrerak apaldu zaizkie. AEBtako lar-milioidun batek, W. Buffetek, zioen: “Egia da klase borroka badagoela, baina nire klasea, hau da, aberatsen klasea da gerra egiten

duena, eta irabazten ari gara”. Zinez egia.

Orain, COVID-19ko garai hauetara helduta, hainbat pentsalarik eta politikaririk aitortuko digute izurrite honen biharamuna diferentea izango dela, eta langile klasea zein jendarte txiroena indartuta eta egoera hobeagoan irtengo dela. Alabaina, eskarmentuak beste zer-bait adierazten digu, tamalez. Estu eta larri gabiltzanean, agintariei ele samurrak irteten zaizkie jendartean itxaropen hutsalak sortze aldera, baina izurriteak sasi-normaltzera egin duenean, hor agertu zaizkigu langileen kaleratzeak, alokairu murriztapenen proposamenak...

Halaber, egoera berri honek oraindik gehiago gizenduko ditu kapitalistak, aberatsenak, gobernuak beraien interesak defendatzen dituztelako. Izan ere, soldatak murriztuko zaizkie milaka langileri edo langabeziara joango dira, eta anartean pandemiarekin muga gabe aberatsen jarraitu duten enpresei ez zaie inolako eskakizunik zuzenduko, ezin baitzaie zerga garaia gorik eskatu, ezta dibidenduak banatzea galarazi ere. Beti bezala, sistemak mozkinak ematen jarraitu behar du, ezer gertatu ez balitz bezala. Horretan ari dira Iberdrola, hipermerkatuak eta zer esanik ez enpresa teknologiko erraldoiak: Microsoft, Google...

Beraz, jendartearen gehiengoak antolatuta eta indartu ezean, kapitalak *irabazten* jarraituko du. ●

Autoaren gatibu



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

Auto bat erosi beharko duzue”, esan ziguten askok haurdun geratu nintzenean, duda izpirik agertu gabe. Baieztapen hori (agindua, kasik) are eta kategorikoagoa bihurtu zen alaba jaio eta herri txiki batera bizitzera joan ginenean.

Erabaki genuen guk geuk bidean deskubrituko genuela ea garraio publikoarekin eta noizbehinka auto bat alokatzearekin ondo moldatzen jarraitu genezakeen ala ez. Eta bidean gertatu zena zoragarria izan zen: gure herri berriko bizilagun batek bere autoa partekatzea proposatu zigun.

Erditu eta gero autobide batean gidari sartu nintzen lehenengo aldian, ezustean harrapatu ninduen motorra 100 km orduko jartzerakoan sentitu nuen izuak: eztarria lehortu zitzaidan, begirada lausotu... Kostata lortu nuen hoge minutuz gidatzea, edozein unetan kontrola galduko nuen beldur.

Ez dut psikologoa izan behar fobia berri horren erroa asmatzeko: nire alabaren bizitza arriskuan jartzearen beldur naiz, baita umezurtz uztearena ere. Amen whatsapp talde batean kontatu nuen eta beste askori ere gertatu omen zaie. Horrek kontsolazio puntua eman didan arren, kezkatu ninduen antza au-

toa inoiz baino premiazkoa dudan garaian beldur horrek nire autonomia mugatzeak.

2019an Euskal Autonomia Erkidegoan 51 lagun hil ziren trafiko istripuetan. Eusko Jaurlaritzako Trafikoko Zuzendaritzaren esanetan, abiadura desegokia, alkohol eta droga kontsumoa eta arreta galtzea dira arrisku faktore nagusiak. Maskulinitate hegemonikoa gehitu zezaketen zerrenda horretara, ikusita 43 gizona eta 8 emakumezko hil zirela. Hortaz, agian nire fobia ez da beldur irrazionala, baizik eta zeharo zentzuzkoa. Nire gorputzak jakin badaki gutxi eta txarto lo egiteak nire arretari kalte egiten diola eta autobideetan arriskuak hartzen dituen jende andana dabilela solte.

Mugikortasunari eta ekofeminismoari buruzko erreportaje baterako irakurri ditudan ikerketen arabera, gizon gehienek autoa erabiltzen dute eguneroko joan-etorrietan; emakume gehienek, ordea, garraio publikoa edo ibiltzea lehenesten dute. Ikerketa horietan kultura matxistari eta genero diskriminazioari lotutako arrazoiak ematen dituzte azaltzeko zergatik garen emakumeak garraio publikoaren “mendeko” edo “gatibu”. Ikerlariak ez zaie okurritu hitz ho-

riek gizonekin eta autoekin erabiltzea, alegia, aztertzea zergatik diren gizonak autoen gatibu.

On egin dit erreportaje horretarako Marisa Castro Delgado Ekologistak Martxan-eko ekintzailea elkarriketatzeak, halakoak esan dizkit eta: “Petrolio kontsumoa murriztea premia sozial eta ekologikoa da”; “Kezkagarria da aurrekontu publikoetan errepideak inbertsio gisa aurkeztea eta garraio publikoa gastu gisa”; “Barik txartelari eta bizikletari esker sentitzen naiz ni aske”. Aitzitik, bizikleta gidari gehienak gizona eta emakume asko bidegorrietatik kanpo ibiltzearen beldur garelako; ez soilik istripuen beldur, baita auto eta motor gidarien agresibitatearen beldur ere.

Aitortu behar dut nik ere sarri lotu dudala beldurrik gabe gidatzen duen emakumearen irudia autonomiarekin eta ahaldundezarekin. Uste dut tranpa patriarkal bat dela hori, maskulinitate tradizionalaren eredua indartzen baitu.

Ondorioz, ja ez nau horrenbeste kezkatzen autobideei hartu diedan beldurrak. Kezkagarriagoa iruditzen zait, esaterako, gure agintariek Bilboko Bolintxu arnagune naturala mehatxupean jarri izana, autoen gatibuek Supersur zentzugabeetan azkarrago gidatu dezaten. ●

Bosgarren olatu kooperatiboaz



**BEÑAT IRASUEGI
IBARRA**
KOOPERATIBISTA

Jendartean beharrak handitu diren garaietan garatu da gehien kooperatibismoa. Proiektu sozioekonomikoak autoeraketaren bidez lantzeko momentu zailenak izanik ere, beharrek zentzuz betetzen dutelako ekimen kolektiboa. Mundu mailan askotan gertatu da: toki eta garai ezberdinetan, industrializazio kapitalista gertatu den momentuetan, jendarte kontsumistak kultura eta hizkuntzak suntsitu dituenean, edo neoliberalismoak indibidualizazio eta pribatizazio prozesuak hegemoniko bihurtu dituenean. Kasu guztietan harreman komunitarioen etena gertatu da, eta kooperatibismoa horri erantzuteko modu bat da.

Euskal Herrian kooperatibak sortu izan ditugu industrializazio garaian, gerra osteko krisian, 70eko hamarkadako astinaldi kulturalen edo Frantziako Estatuaren garapen estrategia zentralistak sortutako beharrei erantzutean. 2009an hasi zen krisi kapitalista konplexu eta luzean murgilduta gaudenez –ekonomian, ingurugiroan, zaintza ereduan, gure bizitzetan eragin handia duena, eta komunitate harremanak ahultzen dituen prozesu indibidualizatzaileak jasaten ditugun bitartean– kooperatibak sortzen ari gara erritmo bizian. Bosgarren olatu kooperatiboa da.

Olatu kooperatibo berri hau gaur egungo ekonomiaren eta jendartearen krisiak

eragindako behar material eta identitarioetatik abiatzen da, bi ildo nagusirekin. Batetik, eguneroko bizitza, kontsumoa eta ohiturak modu kontzientean antolatzearen beharra, elikaduran, energia-aren erabileran, etxebizitzan, aisialdian, finantzetan, eta abar. Horri erantzunez sortu dira kontsumo kooperatibak eta bestelako tresna kolektiboak. Bestetik, krisiak sortu duen lanaren prekarizazio estrukturala dago, bizitza proiektu duinak sortzearen eta etengabeko aurrerabide sozialaren ideiak eten dituen. Soldatapeko lanaren eta prekarizazioaren morrontzatik ateratzeko sortzen ari gara lan elkartuko kooperatibak, garai bateko kooperatiba handien orde, kooperatiba txikien erlauntza anitz eta zabal bat, bizitza bizigarriak eraikitze.

Jendarte neoliberalak zaila egiten du bidea, indibidualizazioa komunitatearen etsai nagusia delako, baina agian horregatik sentitzen dugu autoeraketa komunitarioaren urgentzia gure gorputzetan. Egitea tokatzen zaigu denoi, dauden proiektuak bultzatu eta hutsuneei proiektu berriekin erantzutea. Baina etorkizun bizigarri eta emantzipatzaileak sortzeko, bosgarren olatu kooperatiboa denontzat izatea izango da erronka handiena, prekarizatuenak diren kolektibo eta lurraldeak barne. ●

Prestutasuna



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Udazken hasiera honetan Rodríguez Zapatero, Espainiako presidente ohiaren berba ikonoarekin gogoratu naiz: *talantea*. *Talantea* berez ez da ezer, jarrera esan nahi duelako, borondatea. Baina gizon horrek desberdindu nahi izan zuen bere jarduna aurreko Aznar zorrigaitzoko eta gaiztotik. Zapaterok entzuteko prestutasuna eta guztien ona lortzeko borondatea adierazten zuen makulu-hitzarekin. Ikur bihurtu zuen, gainera.

Eusko Jaurlaritza berriak ekarri dit akordura *talantea*. Alderdi politiko ber-

berak, lehendakari bera eta ia sailbueretan aldaketarik egin barik, berriek aurrekoenganako distantzia jarri nahi izan dutela dirudi. Mendia, Bildarratz eta Sagarduik bilerak egin dituzte, edo egitekoak dira sindikatu eta arloko eragileekin. Badute prestutasunik, orduan? *Zapateroeraz, talanterik?*

Ala, sindikatuek dioten moduan, plantetan dabilta? Galeriarako egingdako mugimenduak dira, azaluskeriak? Antzerki usaina hartzen diezue zuek ere?

Ez ahaztu: *talanteak* eta talentuak antza izan arren, zerikusirik ez. ●

Bestelako etxe ereduaren bila



IRATI TOBAR EGUZKITZA
FEMINISTA ETA SINDIKALISTA

COVID-19aren garaioi nola aurre egin? Txertoa iritsi arte ezinezkoa dela esango dute askok. Murritzten ari zaizkigun eskubide eta askatasunei aurre egin behar diegula pentsatuko dugu beste batzuek, izan ere, etxea txiki geratzen hasi zaigu.

Musukoa jarri eta bizitza aldatu ez zaionik egongo da, akaso positiboa izanagatik edota positibo batekin kontaktuan egonagatik konfinatu beharra izan da egunerokoan izan duen berezitasun bakarra; baina orokorrean, dena aldatu zaigunaren sentsazioa dut. Harremantzeko era aldatu eta sistema goitik behera berrantolatzen hasi da.

Neoliberalismoa gogor dator, Euskal Herrian marka propioz, eta zirrikitu gutietatik sartu zaigu; “norberak egiten duen hori da garrantzitsuena”, “denok eman behar dugu gure onena”, “mobilitazio eta grebak soberan daude”, “gaixotasunaren kutsatzea herritarren ardura da”, “gazteak gazte izateagatik errudun”, eta abar. Indibidualismoan eta kontsumismoan soilik bizi daiteke ondo.

Etiket lan merkatura eta buelta etxera. Enplegurik ez baduzu etxean gatibu eta etxerik gabekoa bazara ez

Etxea bizirauteko
espazio bilakatu
zaigu baina etxea ez
da eraldatu, itogarri
bilakatu akaso. Are
isolatuagoa, bakartiagoa
zaigu. COVID-19ak
familia nuklearrean
gotortu gaitu,
heteroaraua indartu du

-leketan gatibuago, baina kaleetatik kanpo. Prekarioagoa eta esplotatzaileagoa bilakatzen ari den lan merkatuan ez gaudenetan ere, kontsumismoa edo etxea lagun. Naturarekin harremana aldatu dugu kasurik onenean, ez besterik.

Etxea bizirauteko espazio bilakatu zaigu baina etxea ez da eraldatu, itogarri bilakatu akaso. Are isolatuagoa, bakartiagoa zaigu. COVID-19ak sorturiko egoerak familia nuklearrean gotortu

gaitu, heteroaraua indartu, interneten kontsumo basatia areagotu, harremanak mugatu, sexuaren arabera lan banaketan sakondu, esplotazio egoera gehiago sortu eta indarkeria matxista ezkutuan utzi du.

Etxe eta bizi eredu honek nekatuta nauka. Neguak eta eguraldi okerragoak horretara eramango gaituen edota bestelako etxeak, sareak eta harremanak sortzera eramango gaituen galdetzen diogu geure buruei. Txikitik eragingo dutenak, beste logika batekin, aurrez aurrekoa indartu eta babestuko dutenak, beste produkzio, kontsumo eta harreman eredu batzuei balioa emango dietenak. Eskerrak arnasmuneak topatzen ditugun eta kaleak hartzeko prest gauden!

Ezin aipatu gabe utzi tokiko arnasmuneak, Portugaleteko gazteek mimo handiz landu eta zaindutako Sastraka Gaztetxea edota bidaiari eta ameslari askoren topaleku den Arteako Herriko Benta bezalakoak. Kolektiboari erantzuten dioten etxeak, komunitatean errotzen direnak, bilerez eta dantzaz josiko direnak, konspiratuko duten etxeen bila gabiltzanon topalekuak. ●





Eskerrik asko guztioi!

GAZTEZULORATU

PAPERA
25€ urtean

PAPERA + DIGITALA
30€ urtean

DIGITALA
15€ urtean



harpidetza@gaztezulo.eus
640 122 382

ZAHAR EGOITZAK COVID-19 GARAIA

ETXEA KARTZELA BIHURTU DIETE

Uda aurretik egon ginen zahar etxeetako egoiliarren senideekin. EAEko hiru foru aldundiek egoitzetarako orduan ipinitako neurriak eta oraingoak oso antzekoak dira. Badirudike ez dela ezer aldatu egoiliarren eguneroko hertsian. Bada bai, aldatu da, eta asko. Fisikoki, emozionalki eta kognitiboki abiada bizian ari dira hondatzen, eta senideak ondoan daude sufritzen. Erakunde publikoek esan diete ahulenak babesteko neurriak direla hartutakoak, baina senideak ez daude ados. COVID-19az ez, baina penaz ari dira hiltzen zaharrak. Heriotza mota hori ez zegoen familien kalkuluetan.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Gipuzkoako Senideak elkar-teak Donostiako Intxaurrondo auzoan du egoitza, zahar etxe bat dagoen eraikin berean. Han elkartu gara amak egoitza banatan dituzten Beatriz Pierrugues, Beatriz Martínez eta Madalen Ibañezekin. Babestu Araba senideen elkarteko kide batekin ere aritu gara solasean. Amelia deituko diogu, ez baitu izenik eman nahi izan, azken aldian hedabideetan “gehiegi” atera dela uste baitu. Lau solaskideen irudipenak eta iritziak oso antzekoak dira, nahiz eta haien amak egoitza desberdinetan egon, eta foru aldundiak –zahar egoitzen ardura dutenak– desberdinak izan.

Nahiz eta uste duten pandemia hasieran baliabideak urriegi zirela gaitzari aurre egiteko, orduko neurri zorrotzak ontzat emateko gai dira. Ez dute ulertzen ordea, zergatik foru aldundiek jarraitzen duten uda aurrekoen oso antzeko neurriak, beraien ustez zorrotzegiak, mantentzen. Azalpen bat bururatzeko zaie, eta Ibañezek honela azaldu du lerro batean: “Gipuzkoako Foru Aldundiak izua die COVID-19aren ondoriozko heriotzei”. Pandemiaren lehen hilabeteetan kexa ugari jaso zuten foru aldundiek. Baliabiderik gabe eta neurri egoikiak ez hartzeagatik hamarnaka egoiliar hil zirela egotzi zitzaizen. “Orain helburu bakarra COVID-19 egoitzetan ez sartzea da”, esango du Ameliak.

COVIDAREN IZENEAN.

Egoiliarrak martxotik ia ez dira kanpora atera eta senideak oso gutxitan sartu dira. Elkar ikusteko bide ez hain goxoak izan dituzte aukera bakar: bideo-deiak, kaletik balkoirako elkarriketak, baita hesia tarteko dutela izandako harremanak ere. Argazkia Mutiloako egoitza batean, ekainean, ateratakoa da.



Bai Arabako senideak, bai Gipuzkoako hirurek ‘oreka’ hitza jarri dute mahai gainean. Oreak birusetik babestearen eta hondoratze fisiko, kognitibo eta emozionalaren artean. Eta nola lortzen da erdibidea? Batzuetan, irtenbideak eman behar diren presioa sentitu dute senideek: “Beraiek dira adituak, beraiek diseinatu behar dituzte neurriak. Erantzuna guk eman behar dugu? Gu ez gara profesionalak. Nik esaten dizut nola ari diren sufritzen, eta ezin didazu esan gezurretan ari naizela, bortitzak garela. Sufrimendua hor dago”, dio Pierruguesek. Oreak galdetuta Ameliak erantzun gordina du prest: “Senideok ez gara sartu eta haiek ez dira atera. Erakunde pu-



JACOBIA MANTEROLA / FOKU

blikoek diote babestu nahi dituztela, baina ez dakit nik babesteko modua den, zeren [bigarren olatuan] positibo piloa egon da. Langileak ez dira espiritu huts eta birusa sar daiteke. Badakit nire ama hilko dela eta berdin dit COVID-19aren, iktusaren edo pneumoniaren ondorioz hiltzea, baina ez dut nahi ama penaz hiltzerik”.

HONDORATZE AZKARRA

Bisitak egiteko aukera gutxi duten arren, egoiliarrekin egoten direnean antzema-ten dute fisikoki, emozionalki eta kognitiboki beherantz ari direla egiten. Itxialdi luzeak, bisita urriek, eta etxe barruko jarduera faltak ahuldu ditu, zentzu guz-

tietan. Bi elkarreketako senideek diote haien lekukotzen berri eman beharrik ez daukatela, hilabeteak daramatzatela profesionalek –geriatrek, gerontologoek, psikologoek, Mugarik Gabeko Medikuak erakundeak...– aditzaera ematen halako neurriek zein kalte eragin dakizkiekeen egoiliarrei. Erabiltzaileek senideekin oso harreman gutxi dute eta haien etxe diren egoitzetan jarduerak ia ezerezean geratu dira: paseo gutxiago, etxekideen artean askoz hartu-eman gutxiago, margoketarik ez, bingorik ere ez... Senideek etxe barruko jarduerari garrantzi handia ematen diete, familiakoak ez badira estimulu izango, besterik ezean egoitzan aktibo edukitzea eskatzen dute. Ez

da hala gertatzen ari eta susmoa dute kutsatzeko arriskuaren beldurraz gain, langileak ez direla eginkizun horietara iristen. Birusak bestelako zeregin asko ezarri die langileei eta hain preziatuak ziren ekintzak egitera ez dira heltzen. Ondorioz, orduak eta orduak logelako hormei begira.

Ameliaren amak 95 urte ditu. Urtebete eta zortzi hilabete daramatza egoitzan eta egunero izan du senideren baten bisita, martxoaren 8a arte. Hortik aurrera gertatu dena ez du ulertu, bisita egiten zietenekin haserretu eta telefono deia eskegitzeraino. Buruz ondo dago. Udaberrian, azaldu zioten zergatik ez zuen bisitarik jasotzen eta zergatik ezin



DANI BLANCO

GREBA EGUN BABESTUA. Urriaren 6an ELA eta LAB sindikatuek grebara deitu zuten Gipuzkoako zahar egoitzetan. Pentsiodunen hainbat plataformaren, Gipuzkoako Senideak eta Irauli zaintza elkarten babesak izan zuten. Egoiliarrentzat kalitatezko zaintza eta langileentzat lan-baldintza duinak eskatu zituzten. Egun hartan ELAK pandemiaren eraginez etendako greba berrabiarazi zuen, 243 egun greban egin eta gero. Araban urriaren 7an egin zuten LAB, ELA, CCOO eta UGTk deitutako hiru greba egunetatik lehenengoa.

zen egoitza atera. Alabaina, leihotik, itxialdi betean banaka batzuk ikusten zioten kalean, eta itxialdia arindu zenean askoz jende gehiago. Bera barruan, eta senideak ez ziren ageri. Medikazioa jarri zioten depresioa ez areagotzeko. Senideekin egoitza pasean ateratzeko aukera izan zuen uztailearen 3tik 19ra. Ordutik geroztik ez. Bisitak ekainaren 3an hasi zituzten. Hala dio Ameliak: “Martxoaren 8an ama bat utzi nuen eta ekainaren 3an beste bat topatu nuen. Ez zen nire ama”. Ondorio emozionala gain, Ameliak segituan antzeman zuen kalte fisikoa. Pandemia aurretik, egoitza atera eta paseotxo bat emateko gai zen ama. Uztailean, irteteko lehen aukeran konturatu ziren neba-arrebak ama ez zela ibiltzeko gai. Hurrengo irteera gurrildun aulkian.

BISITAK TORTURA

Elkarrekin egoteko hain aukera gutxi izanda, pentsatzekoa zatekeen bisiten irrikan izango zirela egoiliarrek eta haien senideak. Bada, solaskideek

ez digute halako irudipenik eman. Beatriz Pierruguesen amak 86 urte ditu eta memoria galtzen hasia da. Bere alabak

Senideek ez dute
ulertzen foru
aldundiek zergatik
jarraitzen duten
uda aurrekoen oso
antzeko neurriak
mantentzen

“bisita hotzak” deitzen dituen horiek ez ditu ulertzen: “Biak musukoarekin gaude, ez du ondo entzuten, ordu erdi baino

ez dugu, oxigenoa dauka alboan, bi metroko distantziara. Ura eskatu eta ezin diogu eman. Urduri jartzen da”. Bolar batez halako bisitei uko egin, egoitza atzealdera joan eta amaren balkoira hizketan aritu dira. Komunikatzeko beste modua bideo-deiak dira. Pierruguesek berak esan zien langileei tripodea utziko zela mugikorrari eusteko, langileak aparailua eskuan zutela egoten baitziren elkarriketa osoan.

Ibañezek astean ordu erdiz ama bisitatzeko aukera du. Beste guztiak bezala, hauek ere, bi mahaiko distantziara eta musukoarekin. Amak ez dio entzuten eta tarteka musukoa albo batera kentzen du amak zerbait entzungo badio: “Laster esaten dit langileak maskara jartzeko”. Bisita bukatzeko minutu batzuk falta direla ohartarazteko piztu-itzali dabilen argia jarri dute. Amak argia tristuraz ikusiko duela pentsa liteke, ez ordea: “Bisita tortura da amarentzat, ondoan beste bisitari bikoteak egoten dira, ez du ezer entzuten, bukatzeko desiratzen egoten da”.

Amelia eta bere amarentzat bisitak ekainaren 3an hasi ziren. Alabaren ustez, bisitok tortura izan ziren orduan. Ama oso haserre zegoen familiarekin, eguneroko bisita egiteari utzi ziotelako martxoaren 8az geroztik. Tortura ziren amarentzat, baita senideentzat ere. Orain, amaren haserre baretuta, bisitak Almeriako kartzela bateko bisitekin alderatzeko joera du Ameliak. Bi mahai handi bien artean eta musukoak: “Sardina saltzailerik onenak baino oihu handiagoak egiten ditut, ez baitit entzuten. Berak ez dauka ezer kontatzeko, ez dute-eta ia ezer egiten egun osoan”. Egunero hamabost minutuko bisita egiteko aukera dute, eta foru aldundiaren araudiak dio beti pertsona bera joatea komeni dela, baina pandemia aurretik batek baino gehiagok bisitatzen bazuen denek izango dutela aukera senidearekin egoteko. Amelia eta familia horrela ari dira, egunero txandaka bisitatzen. Ameliak joan-etorrian autoz bi orduko bidea dauka. Batzuetan Ameliaren alaba eta biak joaten dira, alaba sartzen da, eta ama sarrerako kristalezko ate ondoan gelditzen da bere ama agurtzeko asmotan. Amaren komentarioa bilobari: “Zure ama zergatik ez da sartzen?”, eta bilobaren erantzuna: “Ezin du”. Amamak: “Zein arraroa den hau dena, ez dut ulertzen!”.

Senarra etxera negarrez etorri zenekoa gogoratu du Ameliak. Amaginarreba beste egoitza batean bizi da, hiru urte dira ez dela komunikatzeko gai. Semeak astean bitan ikusten du ama, bi mahaiko tartea dagoela. “Polizia” –elkarrizketatutako lautik hiruk langileei polizia deitzen diete bisita orduetan betetzen duten funtzioagatik– ondoan senideak ez dadin hurbildu egoiliarrengana. Semeak langileari: “Hor egongo zara?”. Eta langileak: “Bai, nire lana da”.

Ameliari beste senide baten pasarte etorri zaio gogora: “Egoiliarren esan omen zion alabari, ‘emaidazu musu bat!’, eta alabak ezin zuela erantzun. Nik ezin dut ulertu eta ama hark nola ulertuko zuen bada!”. Beste senide batek ama astean behin bisitatzeko aukera dauka, 100 urte dauzka. Hala esaten omen du alabak: “Ez zaigu bada

guri denbora asko gelditzen!”. Entzuten ez duenak, ikusten ez duenak, komunikatzeko arazoak dituenak, musuak, laztanak eta ukitzea behar du, hain zuzen, egiten uzten ez dietena.

UTZIKERIA

Gipuzkoako Senideak elkarteak foru aldundiari eskatu zion senideei uzteko egoiliarren logeletan sartzen, haien arropak eta bestelako objektuak zuzendu ahal izateko. Ez dute baimenik lortu. Bisitetan konturatu dira, xehetasun askoren bidez, erabiltzaileak “utzita” dauzkatela: galtzerdia zulatuta, hortzordeak edo entzuteko aparailua galduta, betaurrekoak puskatuta, eraztuna galduta, egoitzako beste baten jertsea jantzita, jakaren botia falta... Ibañezek jakin zuen ama lorategira atera zela dutxan erabiltzen duen ilerako sarea jarrita. Buroa joan zitzaiola pentsatu zuen. Amak berak azaldu zion ispiluan begiratu eta tximak baino ez zituela ikusten, eta nahiago zuela dutxarako sarean ile apaindu gabeak bildu. Alabak kanpoko ile-apaindegi batera eramatea lortu zuen.

Ameliak, musukoa kendu zuen une batean ikusi zuen bere amak aurpegian bizarra zuela: “Tontakeriak dira nahi baduzu, baina tontakeria asko. Beste batean azazkalak luzeegiak zituen eta neuk moztu nizkion, nahiz eta halakorik ezin den egin”. Haien senideak utzita egoteko bi arrazoi eman dituzte. Batetik, senideek pandemia aurreko garaietan eguneroko txukuntze eta mantentze lan horietan asko laguntzen zuten, eta bestetik, COVID-19 garaian halako lanak egiteko langileak urriegi daude.

Bizi duten egoera latzari irtenbideak emateko egoitzetako, foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako atekak jotzen ari dira. Haien irizpide, agindu, eta interpretazioen artean galduta sentitzen dira, erantzun egokiak inork ematen ez dizkiela. Bitartean denbora aurrera doa, eta urte luzez bizitzeko aukera izan duenak zer bait urri badu denbora da. Beatriz Pierruguesek gogoeta haxe egin du: “Bizitzak zer etorkizun eskaintzen dio, ez bada ondokoekin egotea, ukitzea, elkarbanatzea?”. ●

“

Medikuari egunero esaten nion uzteko ama bisitatzen, bazihoala, eta berak ezetz”

AMAIA ÁLVAREZ

AMA HIL BERRI ZAIO

BARAKALDOKO SANITAS EGOITZAN

Amaia Álvarezek bere amaren azken asteak kontatu dizkigu. Bazekien, bai, 96 urteko amak luze ez zuela iraungo, baina ez zuen espero azkenetan zegoela hain gutxi ikusteko aukera izango zuenik. Egoitzako medikuaren irizpidea gailendu zen, ama egonkor zegoenez bisita berezirik ez... halako batean hil zen arte. Álvarezek berak kontatu digu bizitako kalbarioa.

HILZORIAN EZ DAGOENEZ, BISITA BEREZIRIK EZ

“Trailaren 4an hil zen. Abuztuko azken bi asteetan ia itzartu gabe egon zen. Egunero bideo-deiaren bidez ikusten nuen ama, aulkian, guztiz ahulduta. Nik pantaila baten bidez antzematen nuena haiek ez zuten ikusten? Azken astea ohean pasa zuen, ia itzartu gabe. Medikuek ostiralean joaten utzi zidan eta hurrengo astelehenean ere bai [bisitak bost egunetik behin egiteko aukera zuten]. Hurrengo egunetan joaten ez zidaten utzi eta ostegun horretan hil zen.

Bizkaiko Foru Aldundiaren protokoloa eskuetan nuela medikuari esaten nion pertsona bat azkenetan zegoela bisitak egiteko aukera nuela, bere ondoan egotekoa. Azkenetan egoteak ez zuen esan nahi agonian egotea. Egoitzako medikuari egunero esaten nion mesedez uz-


teko ama bisitatzen, alde egiten ari zela, nik ikusten nuela. Berak ezetz, egoera horretan egoiliar asko zeudela. Egonkor zegoe-la, alegia, bizi-konstanteak ondo zeuzkala. Nik esan nion, 'baina hau eskatu dizut uztailen edo maiatzean? Orain eskatu dizut! Ez duzu ikusten zein egoeratan dagoen?'. Eta berak: 'Egoera horretan sei hilabetez egon daitezke'. Foru Aldundiaren buletin ofizialak dio momentu horietan bisitak erraztu behar direla, baina hitzak dira, ez dute betetzen.

Mediku batek esaten badizu ez dagoela egoera horretan, zuk ezin duzu ezer egin. Nik aste horretan nahi nuena zen ama nirekin hiltzea, banekien hilko zela, baina ezin dira izan hain mediku txarrak begi bistakoa ez ikusteko, ez dira mediku txarrak.

Nire bi anaiak uztailaren 18tik ama ikusi gabe zeuden. Esan nien anaiek agur esan nahi ziotela amari, eta ezetz. Ostegunean, hil baino apur bat lehenago, 10:00etan deitu zidaten esateko anaiek joatea bazutela. Berak ikusi zuenean ama azken-azkenetan zegoela. Anaia bat egun horretan joango zen, beste anaia hurrengo egunean, eta ni 48 orduro, horixe esan zigun medikuak. Ostegunean joan zen anaia esan zidan amak ez ziola eskua estutzen, eta medikuak: 'Egonkor dago'. Bizi-konstanteak ondo izango zituen, baina hori begiratzeari ez da nahikoa. Amatatzen joan zen, kandela moduan. Ez dute inoiz onartuko itzaltzen ari zela. Ni ez naiz aditua, baina 30 urte daramatzat egoitza batean lan egiten, ez naiz medikua eta nire ama da, baina badakit zertaz hitz egiten ari naizen. Azken aurreko bisita ohean egin nion, logelara joaten utzi zidaten zeren ama altxatzeak ez zuen zentzurik. Esan nien gaia oso modu autoritarioan tratatzen zutela, eta esan zidaten ez zutela horrela jokatzeko nire ama zelako, denengatik egin behar zela. Zuzenean logelara sartzea eskatzen nuen, nahi izanez gero beraiek erabiltzen dituzten babes arropak jantzita!

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ERANTZUNA

Pandemia hasi zenetik ez dakit zenbat eskutitz idatzi nituen Diputaziora, azken irailaren 3an, ama hil bezperan. Abuztuaren 21eko buletin ofizialean



“Lehendakariak COVID-19arekin hildakoei omenaldia egin zien. COVID-19arekin hildakoak? Eta penaz hil direnekin ez zara gogoratzen?”

jartzen zuenagatik idatzi nuen, lehen azaldu dizudan horregatik, alegia, egoiliarra azkenetan dagoenean mediku taldeak erraztu behar duela senideak gerturatzea. Eskutitzean esaten nien hiru anai-arrebok ikusi nahi genuela, oso egoera ahulean zegoelako. Izan ere, azken bisitak nik egin nituen pertsona bera joatea eskatzen zutelako. Hirurok eta sarriago joatea eskatu nuen, berandu baino lehen. Hurrengo egunean erantzun zidaten. Erantzuna harrigarria da! Erantzunean zioen Barakaldon egoera epidemiologiko oso txarra zegoela eta bost egunean behingo bisitak izaten jarraituko genuela, eta bisitetara

beti pertsona bera joango zela. Ulertu zuten nire eskaera? Ez zuten irakurri? Edo erantzunetarako formatu itxi bat dute, eta kito?

HURBILTASUN ESKE

Neurri zorrotzegiak zituzten uda aurretik eta neurri zorrotzegiak ezarri dituzte gure amaren azkenetan. Badakit ez dela erraza, baina malguagoak izan behar dute. Maskara, ados, eta nahi baduzu langileek jantzen duten arropa jarriko dut, baina utzi hurbil egoten. Babesa bai, baina hurbiltasuna ere bai. Iku-si dute egoiliar batzuk joan direla eta ez COVID-19agatik, baizik eta beste arrazoi batzuegatik; jateari utzi diote, triste daude, hori dena badakite baina ez dute erremediorik jartzen. Egoiliarrek COVID-19agatik ez hiltzea, hori da zaindu nahi duten gauza bakarra.

Senideak izurridunak bezala tratatzen gaituzte, eta aldiz, langileak gu baino askoz hurbilago daude egunero. Ez dira haien senideak, gu gara haien senideak. Zuek zaintzen duzue, baina nik nahi diot eman maitasun apur bat. Senide askoren sentsazioa da berriro ez garela egongo haien ondoan musu bat ematen, besarkada bat ematen.

Lehendakariak COVID-19arekin hildakoei omenaldia egin zien. COVIDarekin hildakoak? Eta penaz hil direnetaz ez zara gogoratzen?

AMAREN ESKUBIDEAK

Senidearekiko dena galtzen duzula sentitzen duzu. Nire eskubideak baino, berak bereak galdu dituela esango nuke. Egoiliarrei ez diete ezer galdetzen. Galdetuko baliote batek baino gehiagok esango luke 'ze COVID-19 eta ze demontre! Gosea, gerra, gerraondorena, tuberkulosia... denetarik bizi izan dut eta zer arraio, nik nire alabarekin egon nahi dut!'.

LASAITUA

Lasai sentitzen naiz, ama ez delako sufritzen ari. Azken hilabeteen ez zen sufritzen ari, baina puskatuta zegoen, hala-ko zer bait esango balu moduan: 'Berdin zait, ez dut gehiago jarraitu nahi' edo 'oso nagusia naiz eta orain ez daukat lehen neukan pizgarrik'. Oso alaia zen. Orain aske da".

ALCOCERO DE MOLA

ERORIEN HARAN BAT ETXE ONDOAN

1936ko Gerrak urtebete ere egin ez zuela, Burgosko probintziaren ekialdean, Arabako mugatik oso gertu, altxamendu faxistaren buru eta Nafarroako errepresioaren arduradun nagusia zena hil zen, hegazkin istripuz. Heriotzaren tokian, frankismoak eraikitako monumentu handiena dago, Erorien Haranaren atzetik: Emilio Mola Vidal jenerala oroitu eta goratzen duena. Istripuaren udalerrriak badu izena, Alcocero, baita abizena ere, gaur egun oraindik “de Mola” deitzen baita.

 ANDER LEON NANCLARES

1 937ko maiatzean, Emilio Mola jeneralak zeregin argi bat zuen: Bilbo eta bere inguruko industria matxinatuen bandoarentzat bereganatzea. Sortu nahi zuten “Estatu Berriaren” inguruko tirabirek eta beste helburu militarrek itxaron egin beharko zuten. Bilbo zen lehentasuna. Operazioa bide onean zihoan eta horretara bideratuta zituen bere tropa eta baliabide gehienak. Baina, orduan, Bizkaiko hiriburuaren gaineko presioa arintzeko asmoz, Gudaroste Errepublikarrak erasoaldia hasi zuen Gaztelan, Guadarrama mendilerroaren inguruan, “La Granjako ofentsiba” bezala ezagutu izan dena. Fronte horren berpizteak buruhauste bat baino

gehiago ekarri zion *Zuzendaria* ezizenez ezagutzen zen Molari, eta egoera bertatik bertara aztertzea erabaki zuen.

Ekainaren 3an bere Airspeed Envoy hegazkina hartu zuen Gasteizko aireportutik Valladolidera joateko asmoz. Mola jeneralarekin beste lau militar abiatu ziren: Gabriel Pozas teniente-koronela, Francisco Senac komandantea, Luis Fernández Barredo sarjentu mekanikoa eta Ángel Chamorro kapitaina; azken hau aparatuaren pilotua zen. Boskotea ez zen inoiz Valladolidera heldu eta Molak ez zuen Bilbo “liberatuta” ikusi, La Brújula mendatetik gertu, Perejil izenez ezagutzen den muinoan abioiak istripua izan baitzuen eta bidaiariak hil egin ziren.

Istripuaren arrazoi ofiziala “lainoa” izan zen, baina zurrumurruak laster zabaldu ziren. Francisco Franco eta Molaren arteko desadostasunak ezagunak ziren eta “sabotaje” hitza bolo-bolo ibili zen hainbat kuarteletan. Bestetzuek Chamorro pilotuaren gaztetako militantzia sindikal eta anarkista aipatu izan dute, immolazioaren teoria sendotzen saiatzeko. Konspirazio zaleek Molaren alar-gunaren erreakzioa ere nabarmendu ohi dute: “Franco izan da”, erantzun omen zuen senarraren istripua jakinarazi ziotenean. Zalantza asko egon ziren eta badaude, baina frogarik ezean, historia liburuetarako geratu zaigun azalpena “lainoarena” izan da.

Molaren gorpua Iruñera eraman eta bertako hilerrian lurperatu zuten. 1961ean Erorien Monumentura eraman zituzten bere hezurak –Iruñeko egungo Askatasunaren plazan dagoen eraikineratzen, eta hor egon ziren 2016 arte, harik eta udalaren ekimenez, familiak handik atera behar izan zituen arte.

ALCOCERO, ZERO GUNEA

Istripuaren ondorengo egunetan mugimendu handia antzeman zen Alcoceron. Gorpuk kiskalita egoteak identifikazioa zaildu zuen; dominak izan ziren gakoa, eta Molaren kasuan, beti aldean zerabilen argazki-makinagatik ezagutu zuten. Militarrek alcocerotarrei agindu zieten hegazkinaren hondakinak eta gainontzeko materiala Perejil muinoaren magaletik jasotzeko eta herriko plazan uzteko. Haien zeregina zintzo bete zuten, eta egun batez, Burgosetik joandako kamio batean materiala kargatu ondoren, Espainia Berriaren hiriburura eraman zuten dena. Istripuaren ikerketaren berri ez zen inoiz jaso.

La urtebete igarota, istripuaren beste ondorio baten berri izan zuten Alcoceroko udaletxean. Burgosetik motorzale ofiziala ailegatu zen herrira eta orduko alkateari komunikazio idatzia eman zion: 1938ko maiatzaren 28ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratutako agindua jakinarazi zioten. Barne Ministroa eta Francoren koinatua zen Ramon Serrano Suñerrek sinatutako idatzian, Alcoceroko udalbatzaren eskaeraren onarpena azaltzen zen, eta une horretatik aurrera, “jeneralaren oroimena eta herriaren pribilegio triste” historian gordeta geratzeko, herriaren izena Alcocero de Mola izango zen. Institutu Geografikoak, Erakunde Katastralak eta Gobernadore Zibilak ez zuten inolako eragozpenik jarri.



ANDER LEON

BOST BIDAIAIRI. Irudian, 1937an hegazkina erori zenean hildako bost militarren omenezko arkuak; egun gurutze berriak ere jarri dituzte. Arabatik 40 kilometrora dago monumentua.

Denbora eta gerra aurrera joan ziren eta 1938ko neguan jadanik zalantza gutxi zegoen frankistek irabaziko zutela. Gerraostea eta Espainia Berriaren eraketa prestatzeko garaia heldu zen beraz; zeregin horretan sinboloak eta propaganda ezinbestekoak izan ziren. Testuinguru horretan ulertu behar da Alcocero de Mola udalerrian, istripuaren tokian bertan, Molaren omenezko monumentu erraldoia eraikitzeko erabakia. Lopez Pinto jenerala izan zen lanen arduradun nagusia. Langileak, aldiz, gerrako presoak eta inguruko herrietako biztanleak. Soldaduek zaintza lanak egin zituzten.

“Espainia Berria”
eratzeko, sinboloak
eta propaganda
ezinbestekoak ziren;
testuinguru horretan
ulertu behar da
Alcocero de Molako
monumentua

EUSKAL GUDARI ETA MILIZIANOEN LANA

Villalomezeko harrobian, Alcocerotik zazpi kilometrora, gerrako presoen langile batailoia ari zen lanean eta bertatik atera zen eraikuntza egiteko materiala. La Bureba eskualdeko herritarren zeregina, berriaz, harriak harrobitik obrara garraiatzea izan zen; horretarako beraien gurdia eta abereak erabili behar izan zituzten. Eraikuntza lanetarako Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrutik eramandako presoak erabili zituzten. Esklabo horien jatorria oso anitza zen, eta tartean euskaldun ugari zeuden, bai gudariak baita milizianoak ere. Horrez gain, Nazioarteko Brigadetan ibilitakoak ere aritu ziren lanean. Ehunka presoren eskulana erabili zuten eta, negu hori bereziki gogorra izan bazen ere, hiru hilabetetan monumentua bukatuta geratu zen.

Inaugurazio ekitaldia gerra bukatuta egin zen, 1939ko ekainaren 3an, hau da, istripuaren bigarren urteurrenean. Ospakizunen protagonista nagusia Franco bera izan zen, *Generalísimo*-a, eta berarekin batera gobernuko ministro guztiak, Japon, Italia eta Alemaniako enbaxadoreak, militar mando ugari, Vatikanoko Nuntzioa, Elizako ordezkaritza gorena eta Molaren alarguna eta familia zeuden.

Diskurtso patriotikoak, meza nagusia, hegazkinen erakustaldia eta musika militarra izan ziren ospakizunaren osagai nagusiak, eta errematea, Franco beraren otoitza Molaren gorpua erori zen toki berean. Hemerrotekan garai-ko prentsak inaugurazioari eman zion garrantzia oso argi ikus daiteke, propagandarako material ona.

MONUMENTU IKARAGARRIA ZUTIK

Gaur egun, 81 urte geroago, monumentuak zutik dirau eta bisitatzeko moduan dago, Ebrotik apenas 40 kilometrorra. Alcocero de Mola herrira N-I errepideko Briviescarako irteeratik heltzen da eta herri gunean seinale ofiziala dago (monumento General Mola 3) eskuinera jo behar dela adierazten duena. Garai hobeak ezagutu ditu 3 kilometroko bide horrek, baina oraindik autoz egiteko modukoa da. Pinudi baten erdian kokatuta dago *megalitoa* eta bere handitasunak ikaratzten du, harri-garria da.

Eraikin monumentalaren itxura eta egitura ikusita, arkitektoak faxismo italiarraren estiloko iturritik edan zuela esan dezakegu, baina parafernalia katolikoa gehituta. Harritzko hesiz inguraturiko eremu hori "sakratu" izendatu zuten. Gorpuak aurkitu ziren magalean hasten da oroigarria: hildako bakoitza azaldu zen tokian gurutze bana dago eta hortik gora abiatzen da monumentuaren egitura. Eremu sakratuaren gaineko horman grabatuta, ezabaketa saiakerak egon badira ere, Mola jeneralari buruzko testu hagiografiko bezain luzea irakur daiteke, eta karelaren gainean muinoari begira erdi-puntuko bost arku daude, bakoitzak hegazkinaren bost bidaiarietako baten izena duela; erdikoa, noski, Molarena da. Hortik abiatzen da 350 metro luze eta 50 metro zabal duen eskalinata, arrapala, harresi eta balaustada bilduma, istripuaren tokia Perejil muinoaren tontorrearekin lotzen duena. Gailurrean 22 metroko altuera duen zutabeak monumentua borobiltzen du.

Monolito erraldoian, arrano inperiala, uztarria eta geziak, *Una, grande y libre* esaldia eta hizki handiz, omen-duaren izena, "MOLA", ikus daitezke. Orotara, 18.000 metro koadro, frankismoak eraikitako bigarren oroigarri handiena. Ikaragarria bezain ezezaguna.



HISTORIA ETA MEMORIA

Grafiti ugari irakur daiteke eraikinaren hormetan eta harresietan, gehiago monumentuaren helburuaren kontrakoak aldekoak baino. Hala ere, eta Burgosko memoria historikoaren aldeko elkarte batzuek salatu dutenez, azken hilabeteetan hainbat arlotan mantenu lanak egin dira, besteak beste gurutzeak berritu, elementuak gehitu eta landaretza txukundu dute. Elkarte horiek behin eta

berriro salatu dituzte monumentuaren inguruko gertakariak eta kezka adierazi dute oraindik ere erabiltzen ari direlako. Baina Alcocero de Mola herrian ez dute inolako kezkarik dirudienez. Ez behintzat zentzu horretan.

Eduardo Ranz abokatuak, beste toponimo batzuen artean, herriaren izena ere salatu zuen 2016an, Espainiako Memoria Historikoaren legea urratzen duela argudiatuz. Apenas daude 32 lagun erroldatuta Alcoceron eta azken hauteskundeetan Vox alderdi ultraeskuindarrak irabazi zuen, botoen %46,2 eskuratzuz. Bigarren indar politikoa Alderdi Popularra izan zen botoen %30,8rekin.

1938an ezarri zioten abizenarekin pozik daude alocerotarrak eta monumentuaren egoerarekin ez horrenbeste, ondo konponduta eta iragarrita turismo-rako amua izan daitekeela uste baitute batzuek. Alkatetzatik izena aldatzeko prest azaldu dira, baina Espainiako Gobernuak edo legeek derrigortzen badute, entusiasmo askorik gabe: "Aldatuko dute izena baina Historia ezin da aldatu", esan zuen alkateak. Hori izaten da gertatutakoa eta Historia gauza bera direla uste dutenen ohiko aitzakia. ●

ALTXAMENDUAREN BURU

Euskal Herriko prentsa frankistak leku handia eman zion Emilio Molaren heriotzari, baina hegazkinaren hondarrak berehala erretirarazi zituzten gurdiz (behean); Handik bi urtera inauguratu zuen Francisco Francok monumentua (goian).



“

Iturri bakarretik edanez, EH Bildu uniformizatzen ari dira”

MIREN ARANOA

Barne gatazka latza bizi dute Eusko Alkartasunako bi sektorek: batean egungo zuzendaritza dago, eta bestean haren kudeaketari kritika zorrotza egiten diona. Azken honetan dago Miren Aranoa (Buenos Aires, 1958), Nafarroako EAko koordinatzailea. Osasun egoera dela-eta, irailean EH Bilduko foru parlamentari izateari utzi zion medikuaren aholkuz. Alderdiaren barne egoera eta EAk EH Bildun behar duen kokapena landu ditugu elkarrizketan.

 XABIER LETONA  JOSU SANTESTEBAN

Barne gatazkarekin oso egoera gogorra bizitzen ari zarete EAn. Zuri osasunean ere eragin dizu.

Bai, egoera horren oinarrian dira EA barruan bizi izan ditugun egoera gogorak: gure aurka zabaldutako espedienteak, oihuak, begirune falta... 2017tik edo lehenagotik datorren egoera da. Oso aspalditik, EAko nazio mailako zuzendaritza ez da kontuan hartzen ari bere militantziak dioena, proposamenik gabe dago, noraezean...

2017an bi kongresu izan genituen EAn, bata ohikoa eta bestea ezohikoa. Ezohikoan, Carlos Garaikoetxea lehen-dakariaren proposamen bat onartu zen, EH Bildu koalizio gisa indartzearen aldekoa. Gero ohiko kongresuan ere, zentzu berean, ponentzia politikoak %80ko sostengua izan zuen, baina Pello Uriza-

rrek [orduko idazkari nagusiak] ez zion bide eman. Kongresu hartan Pello Urizar konpromisarioen hamalau botoren aldearekin hautatu zuten idazkari nagusi, eta susmoekin atera ginen hautaketa hartatik.

Militanteek zuzenean hautatzen dutenean beste emaitza batzuk daude: Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan beste sektorean dauden koordinatzaileak hautatu dituzte. Bizkaiko botoak erabakigarriak izan ziren Urizarren hautaketa hartan, baina oraindik ezin izan ditugu hango afiliatuen erroldak ikusi, ez digutelako uzten. EH Bilduren egituraketaz gain, errolden gardentasuna da gatazka piztu duen beste gai handia. Alderdiko koordinatzaileok eskubidea dugu afiliatuen errolda horiek ikusteko, baina etengabe ukatzen zaigu eskubide hori.

Baina garai hartan kongresuaren emaitzak onartu egin zenituzten, ezta? Ez zen zalapartarik izan.

Bai, zer egin behar genuen! Horregatik datuak eskatzen jarraitu genuen. Tartearen hamalau botokoa izan zen eta, gainera, inork ez daki ongi nor ordezkatzeko zuten konpromisario haiek: existitzen ez diren pertsonen izenean eman ote ziren, hildakoen izenean... Mikel Goenaga, Iratxe Lopez de Aberasturi [hurrenez hurren Gipuzkoako eta Arabako koordinatzaileak] eta hirurok Donostian prentsaurre-



koa eman genuen gai honi buruz eta Pello Urizarrek dimititu egin zuen, bazekielako hor atzean zer zegoen.

Joseba Gezuragak ordezkatu zuen eta honek hauteskunde primarioetara deitu behar zituen. Baina nola egingo zituen primario txukunak ez baziguten datu baserako sarbiderik uzten? Primarioak antolatu ziren: Eba Blancok [egungo jarduneko idazkari nagusiak] 50 bat militanteren bermeak aurkeztu zituen eta Maiorga Ramirezek hamar aldiz gehiago, baina hala ere ez zioten aurkezten utzi. Amarru bat

erabili zuten, esanez ez genuela Iparraldean eskatutako ordezkaritza betetzen. Beraz, aurkaririk gabe, Eba Blanco izendatu zuten idazkari nagusi. Prozesu hori guk auzitegietara eraman genuen, eta orain arrazoia eman digute. Beraz, oraindik ez da gure idazkari nagusia, ez direlako primarioak egin eta inork ez duelako hautatu.

Baina joan den uztaileko epai judizialak arrazoi eman zion nazio mailako zuzendaritzari, primarioen prozesua onetsiz.

Bai, uztaileko ebazpen hori gure kontrakoa zen, ez zitzaigun koherentea iruditu eta helegitea jarri genion. Beraz, prozesua ez da bukatu. Urriaren amaieran beste epai batek esan zuen Eba Blanco oraindik ezin daitekeela primario horien ondoriozko idazkari nagusi izan. Auzitegietara jo aurretik, EAko Berme Batzordeak ere arrazoia eman zigun primarioen gaiarekin, baina orduan, zuzendaritzak batzordeko kideei espedientea ireki zien, lehenago guri bezala.

Uztaileko ebazpenean, epaileak arrazoia eman dio zuzendaritzari, besteak beste hauek aurkeztu zutelako dokumentu bat esanez Iratxe Lopez de Aberrasturik izan zuela sarbidea afiliazioaren datu basera, baina hori gezurra da. Horren aurrean, guk kereila kriminala jarri dugu epaitegietan, norbait sartu delako artxibo horietara ustez Iratxek izan beharko lukeen sarbide batekin. Alderdian, teorian, oso jende gutxik ditu sarbide horiek, baina gero ikusi dugu ez direla hain gutxi, besteak beste, EH Bilduko antolaketa idazkaria ere sartu delako... 47 alditan!

Alderdiko bi aldeak saiatzen ari zarete zuen posizioak ebazpen juridikoekin babesten, baina azkenean epaileek ezin dute erabakiz eta nola izango den EA. Hori zuek konpondu eta erabaki beharko duzue. Nola?

Hala da, bai. Datorren ekainean ohiko kongresua dugu eta aurretik ezohiko kongresua egin behar dugu derrigorrez.

Alderdiko estatutuen arabera, afiliazioen laurdenak eskatzen badu kongresua egin behar da. Guk dagoeneko bildu ditugu sinadurak eta eskatu dugu hura egitea.

Nola dakizue laurdena duzuela?

Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako datuak baditugu, baina ez Bizkaikoak, hor da gakoa. 2017ko Kongresua eta gero, hiriburuetako koordinatzaileak ere hautatu ziren eta Hegoaldeko laurak gure sektorekoak dira, Bilbokoa barne. Ez gara lau afiliatu, gehiengoa gara. Bermeein egingo den ezohiko kongresu bat behar da.

Eta zuzendaritzak ezohiko kongresua onartzen ez badu?

Horrela jokatzek, nire ustez, egoera bideratzeko borondate eza erakutsiko luke. Datorren ekainean EH Bilduren kongre-

sua izango da, eta ordurako erabakita izan beharko dugu EA nola kokatuko den haren barruan. Ezin gara orain arte egon garen bezala egon, alderdiaren jarrera erakutsi gabe, bestela EA desagertu egin liteke. Agian hori da afiliazioak nahi duena, baina hitza eman behar zaio eta esan dezala zein etorkizun nahi duen EArentzat. Demokrazia kontua da.

“

Ez gara lau afiliatu, gehiengoa gara. Bermeein egingo den ezohiko kongresu bat behar da”

Egoera dagoen moduan, EA egon daiteke apurketa arriskuan?

Ez. EAn beti jokatu dugu interes pertsonalen gainetik eta herri interesen alde, eta oraingoan ere hala egingo dugula uste dut. Baina gu gogor borrokatuko gara dagokion toki guztietan alderdiak bere irizpideak eta ahotsa izan ditzan. Orain ez gara hori egiten ari.

Goazen aztertzerazuek nola ikusten duzuen EA EH Bilduren baitan. Pixkanaka koalizio izaera desegin eta



EAEko itunpeko ikastetxeen finantziazio publikoa eta eskola-orduak lotu ditu STEILASen ikerketa batek

Ondorio garbia atera du STEILAS sindikatuaren ikerketak: eskola publikoak bezala astean 25 eskola-ordu emango balituzte, EAEko itunpeko ikastetxeek soberan lukete Jaurlaritzak irakasleen soldatak ordaintzeko ematen dien diru publikoarekin, baina itunpeko askok eskola-ordu gehiago eskaintzen dituzte, eta ordu estra horiek ordaintzeko gurasoei kuotak eskatzen bukatzen dute.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Itunpeko ikastetxeetara 623,5 milioi euro bideratu ditu ikasturte honetan Eusko Jaurlaritzak, aurreko ikasturtean baino 17 milioi eta erdi gehiago. Haur Hezkuntza (bigarren zikloa), Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako 314 ikastetxe itundu dira guztira, zehazki 7.159 ikasgela, aurreko ikasturtean baino bi ikasgela gehiago. “Eskola publikoan aldiz, ikasgela kopurua gutxitu egin da; azken finean, Jaurlaritzak eskola pribatuen aldeko hautua egiten du”, salatu dute STEILASeko kideek.

Haur eta Lehen Hezkuntzan, 25 eskola-ordu eskaintzen ditu eskola publikoak astean. Itunpekoei, 25 eskola-ordu eskaintzeko irakasletan gastatzen duten dirua baino gehiago ematen die Jaurlaritzak (ikusitako taula), eta horregatik sindikatuak dio diru-partida horretan gainfinantzatuta daudela: alegia, Haur Hezkuntzan adibidez, ikasgelako 1,185 irakasle daudela kalkulatu da –irakasleaz gain espezialistak eta abar daudela aurreikusten baita; ratio hori handituz doa mailan gora egin ahala–, eta ratio horrekin ikasgela bakoitzari 56.726 euro dagozkio, baina Jaurlaritzak

59.239 euro bideratzen ditu, 2.513 euro gehiago. Zer gertatzen da? Sindikatuaren arabera, itunpeko askok egunean 5 eskola-ordu beharrean denbora gehiago ematen dutela, baita 6 ordu ere –hau da, astean 25 beharrean 30 ordu; adibidez Gasteizko Kristau Eskolako guztiek Haur eta Lehen Hezkuntzan 30 ordu ematen dituztela azaldu digu STEILASek– eta hortaz, kontuak ez zaizkiela ateratzen.

“Hori ulertzea funtsezkoa da, jakiteko zer dagoen eskola erlijioso eta ikastole-tako patronalen hitzen atzean, diotenean diru publikotik jasotzen duten finantziazioa ez dela nahikoa. 25 eskola-ordu baino gehiago ematen dituztenez, diru gehiago behar dute, eta itunpeko askok hori da gurasoei helarazten dieten mezua, ez dutela diru publiko nahikoa jasotzen eta gurasoek ordaindutako kuotak behar dituztela proiektua aurrera ateratzeko”, kritikatu dute STEILASeko kideek.



Ordu gehiago eskaini nahi badituzu, eskaini, baina ez baliatu finantziazio publikoa gaitzeskintza egiteko”

Steilas

GAINESKAINTZAREN LEHIA, SEGREGAZIORAKO ELEMENTU

Astean 25 ordu emanda irakasleak ordaintzeko diru nahikoa badute, zergatik eskaini gehiago, ekonomikoki estuago ibiliko badira? Hori gure galdera. “Horrekin lehiatzen direlako. Lehia kuantitatiboa da, sare publikoarekiko gaitzeskintza dago, eta alboko ikastetxe pribatuak egunean 6 ordu ematen baditu, norbera ere joko horretan sartzen da. Gaitzeskintza da segregaziorako elementu nagusietakoa, kuoten sistema legitimatzen duelako, baina bada-gogizartean sektore bat hala nahi duena,

prest dagoena kuota bat ordaintzeko ikastetxe horretan beren seme-alabek ikas dezaten, eta ‘produktu hori nahi duten bezeroak’ dituzten bitartean, gaitzeskintzari eutsiko diote”, erantzun dute sindikalistek. “Hori bai, eusten diote gaitzeskintzari horretarako diru publikoa ere jasoaz, zeren diru publiko hori gabe ezingo lukete mantendu, sekulako dirutza litzateke. Eta hori ez da zilegi: ordu gehiago eskaini nahi badituzu, eskaini, baina ez baliatu finantziazio publikoa gaitzeskintza egiteko, legeak dioelako diru publikoa jasotzen duten itunpeko ikastetxeek derrigorrez doako hezkuntza eskaini behar dietela familiei, ezin dutela kuotarik kobratu”.

Segregaziorako faktore izateaz gain, gaitzeskintza politika honen beste ondorio bat ere nabarmendu digute: kontziliazioa. Eskola-ordu gehiago eskainiz, ordu gehiago daude ikasleak ikastetxean –“Kristau Eskoletan, adibidez, Erlijioa emateko baliatu ohi dituzte ordu estra horiek”–, eta kontziliazioa bermatzeko aukera handiagoa ematen zaie familiei, “hain juxtu teoriarik behintzat baliabide ekonomiko gehiago dituzten familiei, batez ere eskola publikoak jasotzen dituelako egoera sozioekonomiko txarrean diren ikasleak”.

Ondoko taula ikusita hobeto ulertu daitekeenez, irakasleen soldatarako finantzaketan oinarritzen da ikerketa –eta Haur Hezkuntzan bezala gertatzen da Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, zeinetan 30 eskola-ordu eskaintzen dituen eskola publikoak eta hortik gora itunpeko askok, sindikatuak salatu duenez–. Ikasgela itundu bakoitzak, berez, diru kopuru handiagoa jasotzen du Jaurlaritzatik, funtzionamendu eta mantentze lanetarako, irakasle ez diren langileak ordaintzeko eta abar (ikusitako taula). Horrez gain, arlo zehatzak sustatzeko bestelako diru-partida publikoak ere jasotzen dituzte ikastetxeek, dekretu bidez.

Garbi du STEILASek, eta hala mahaigaineratu nahi du ikerketa honekin: Jaurlaritzak sare itunduaren aldeko indarra egiten du, eskola publikoa lehenetsi ordez. ●

Itunpeko ikastetxeen finantzaketa publikoa

2020-2021 ikasturtea

Ikastetxe erlijiosoetan Ikastoletan Bietan berdin*

HAUR HEZKUNTZA 2. ZIKLOA

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua irakasleen soldatetarako (1,185 irakasle gelako)

25 eskola-orduri dagokiona**: **56.726,54 €**

Jaurlaritzak ematen diena: 59.239,70 €

30 eskola-orduri dagokiona: **62.439,78 € / 65.277,95 €**

25 ordurako behar dutenaren eta Jaurlaritzatik

jasotakoaren arteko aldea**: **2.513,16 €**

30 eskola-ordu emanez falta zaien diru kopurua:

-3.200,08 € / -6.038,25 €

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua guztira (dekretu bidez beste proiektu batzuetarako jasotzen duten dirua gehitu beharko litzateke): 68.088,58 €

LEHEN HEZKUNTZA

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua irakasleen soldatetarako (1,222 irakasle gelako)

25 eskola-orduri dagokiona**: **58.497,75 €**

Jaurlaritzak ematen diena: 60.994,49 €

30 eskola-orduri dagokiona: **62.439,78 € / 65.277,95 €**

25 ordurako behar dutenaren eta Jaurlaritzatik

jasotakoaren arteko aldea**: **2.496,74 €**

30 eskola-ordu emanez falta zaien diru kopurua:

-1.445,29 € / -4.283,46 €

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua guztira (dekretu bidez beste proiektu batzuetarako jasotzen duten dirua gehitu beharko litzateke): 71.252,50 €

BIGARREN HEZKUNTZA

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua irakasleen soldatetarako (1,60 irakasle gelako)

30 eskola-orduri dagokiona**: **89.388,87 €**

Jaurlaritzak ematen diena: 97.538,47 €

32 eskola-orduri dagokiona: **81.262,61 € / 89.388,87 €**

30 ordurako behar dutenaren eta Jaurlaritzatik jasotakoaren arteko aldea**: **8.149,6 €**

32 eskola-ordu emanez ere duten gainfinantzaketa: **16.275,86 € / 8.149,6 €**

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua guztira (dekretu bidez beste proiektu batzuetarako jasotzen duten dirua gehitu beharko litzateke): 111.019,40 €

*Ezberdinak dira ikastolek eta kristau eskolek dituzten lan hitzarmenak, hortik ezberdintasuna hainbat emaitzatan.

**25 eskola-ordurekin (DBHn 30) ikasgela bakoitzak irakasleetara diru hori bideratzen duela justifikatu behar duten arren, ikastetxe askok soldatetara diru gutxiago bideratzen dutela dio STEILASek, lan hitzarmena baliatuz. Hortaz, aldea praktikan handiagoa da kasu askotan.



ITURRIA:  **stellas**



Belgikan erraten dute pazienteen artatzea ama hizkuntzara egokitu behar dela”

MARITXU GOYHENECHÉ, ERGOTERAPEUTA

Proba xume, eta era berean esanguratsua egin zuen Goyhenechek Izpurako Luro Fundazioaren zahar etxean. Ergoterapeutek pazientearen autonomia mantentzeko ahalegina egiten dute eta Goyhenechek jakin nahi zuen ea jatorrizko hizkuntzan artatuz gero gaixoaren gaitasunak gehiago sustatzen ziren. Ikerketa lana Belgikan saritua izan da eta duela gutxi UEUk eta Iker zentroak antolatutako Hizkuntzalaritza klinikoko I. jardunaldian azaldu du egileak.



ONINTZA IRURETA AZKUNE  MARITXU GOYHENECHÉK UTZIA

Zure ikerketa lanak ondokoa du izenburu: *Ama hizkuntzaren erabileraren eragina Alzheimer dementziak hunkitua den pertsonaren akonpainamenduan. Zer nahi zenuen aztertu?*

Alzheimerrak komunikazio arazo anitz eragiten ditu pazienteengan. Hitz egiteko, ulertzeko, idazteko arazoak izaten dituzte. Lehenik, ikerketan erakutsi nahi nuen demenziarekin komunikazio arazoak bazirela, baina ama hizkuntzan gutxiago, eta ondorioz, ama hizkuntza erabiltzean pertsona laguntzen genduela haren motibazioan, jarreran eta parte-hartzean.

Guretzat ebidentea da ama hizkuntza erabiltzean pertsonak gehiago ulertuko gaituela, baina gai hau oso gutxi ikertu da.

Zergatik aukeratu zenuen Luro Fundazioaren Izpurako egoitza?

Ezagutzen nuen egoitza, nire lagun baten aita han ari da lanean mediku gisa eta banekien Nafarroa Beherean izanki euskaldun anitz bazirela, elebidun anitz, bai langileetan bai adinekoetan ere. Garrantzitsua zen, zeren leku anitzetan badira adineko elebidunak, baina langileetan zaila da euskaldunak atzematea. Adibidez, Lapurdin zailtasunak nituen langile euskaldunak atzemateko, baina

Luron banekien langile gehienak euskaldunak zirela.

Gainera, hara joan eta ikerketa aurkeztu nuelarik erran zidaten zinez parte hartu nahi zutela, zeren duela urteak eta urteak beharra sentitzen zuten. Bazekiten euskara erabilia eragina positiboa zela, pertsonen artan laguntzen zuela, baina inork ez zuen deus landu.

Bi hilabeteko ikastaroa egin behar nuen adinduen egoitza batean eta Luro Fundazioan onartu ninduten ikasle gisa.

Zein da zure ikerketaren funtsa?

Lau pertsonari garbitze lanak egin nizkien goizetan. Altxatu, bainugelara eram... urrats guztiak. Gauza bera egin nuen euskaraz eta frantsesez, tartean hilabete eta erdiko etena utzita, pertsonak nirekin familiartasunik ez sortzeko. Tarte horretan, garbitze denboraz gain, ez nintzen deusetarako egoten pertsona horiek.

Bestetik, zahar etxeko hamar profesionalentzako galderak prestatu nituen bertako psikologoarekin eta ergoterapeutearekin. Galdera irekiak ziren eta elkarrizketak grabatu nituen. Naturalki egin genuen elkarrizketa, librea, ahal bezainbat partekatzeko. Galdetu nien adinduegan hizkuntzen erabilerak dituzten eraginez. Hamar profesionalen artean

ziren erizainak, gerokultoreak, medikuak, ergoterapeuta, animatzailea eta psikologoak.

Zer erantzun zuten profesionalak?

Ondorio positiboak atera nituen haiek errandakoetatik. Erraterako, pertsona lasaitzea errazagoa zaie euskara erabilita, edo ulermenari dagokionez, erraten zuten aktibitate bat euskaraz esplikatu delarik hobekiago ulertzen dituztela aginduak, eta hala, jarduera adierazgarriagoa egiten dela, eta jarduera adierazgarriagoa bada pertsonaren gaitasunak hobeki sustatuak izanen dira. Parte-hartzean eta motibazioan ere, erraten zuten eragin positiboa zuela euskaraz egiteak: euskaraz hitz batzuk erranda pertsonak animatzen zirela jarduera batean parte hartzeko, eta aldiz, ohartzen ziren frantsesez erratean gutxiago parte hartzen zutela.

Zure pertzepzioak eta profesionalak esandakoak bat etorri al dira?

Bai. Kontent nintzen, zeren ikerketa egin nuenean banituen nire ideiak eta zinez kasik dena baieztatu dute. Egia erran, hastapenean parte-hartzean eta motibazioan egin nuen nire ikerketa, baina haiek dute aterarazi jarreraren eragin anitz duela ama hizkuntza erabiltzeak. Dementziak eraginda haserrealdi

eta antsietate gertakari anitz dute, eta euskarak duen hurbiltasun horri esker, erraten dute lotura sortzen dela, eta gertakari horiek kalmatzea errazagoa dela. Ikerketan gehitu dut.

Profesional elebakar frantsesek hizkuntza kontzientziarik ba al dute?

Orain Biarritzen eta Angelun ari naiz lanean. Langileetan elebidun gutxi da, baina hala ere konturatzen naiz, erizainak-eta poliki-poliki ohartzen direla euskaraz edo espainolez –Angelun badi-tugu espainolez egiten dutenak– egiten badute pertsona laguntzen dutela. Usu etortzen dira niregana esanez, “Maritxu, ikasi nahi ditut hitz batzuk euskaraz”. Batzuek kontzientzia dute eta entseazten dira, baina ez da gehiengo.

Senide euskaldunek eskatzen al dute adindua euskaraz artatzea?

Plazer egiten die ikusten dutelarik euskara badela egoitzan, baina bestela usu egokitzen dira, erran nahi dut Biarritzen eta Angelun. Nafarroa Beherean eta barnealdean hizkuntza elementu positibo bat da.

Senideek ikusten badute zahar etxe batean euskaldunak direla gehienak, nire ustez, posible da hautatzea euskaldunak dauden zahar etxea. Luron hori sentitu nuen, familiak euskaraz ari ziren erizainekin, beren gurasoeekin, aldiz Biarritzen eta Angelun ez dut horrelakorik sentitu.

Ergoterapia Belgikan ikasi duzu. Han bestelako hizkuntza kontzientzia aurkitu duzu.

Ikerketa lana Euskal Herrian egin dut, baina Belgikako ikasketetarako zen eta irakurri dutelarik ukan dut sari bat, eta artikulu gisa atera dute. Aitzindaria zela erraten zuten, berdin zitzairen euskarari buruz egin izana. Haiek erraten dute ama hizkuntzak bultzatu behar direla, gure arta egokitu behar dugula ama hizkuntzara. Haiek badituzte hiru hizkuntza ofizial, eta ohartzen dira flandriar



“Dementziak eraginda haserrealdi eta antsietate gertakari anitz dute, eta euskarak duen hurbiltasun horri esker, profesionalek erraten dute lotura sortzen dela, eta gertakari horiek kalmatzea errazagoa dela”.

bati frantsesez eginez ez dela ongi pasako, arta egokitu behar dela pertsona bakoitzera eta ez arta orokor bat egin.

Baita ere, anitz inspiratu nintzen Herbehereetako testuak irakurrita. Haiek dira aitzinatuenak ama hizkuntzan eta ergoterapian. Usu aipatzen dituzte migratzaileak, eta erraten dute ez dela bakarrik haiek egokitzea, baizik eta ar-

tatzaileak ere bai, erran nahi baitu entseatu behar direla haien hizkuntza ikasten edo hitz batzuk egiten.

Frantzian gutxiago landu da gaia, testu gutxiago atzeman ditut horri buruz. Beharbada hizkuntza ofizial bat dutelako da, eta ez anitz. Belgika eta Herbehereekin konparatuz, pentsatzeko manerak bada desberdintasuna. ●

BABESLETZA:



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

Lezo Euskaraldiarekin
Izan ahobizi, izan belarriprest

ARGIA 1919 · 2020

Kazetaritza, txanpon baten truke



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Venezia, 1563. Errepublikaren eta otomandarren arteko laugarren gerra ofizialki zazpi urte geroago piztu arren, turkiarren eta veneziarren arteko harremanak gatazkatsuek ziren ordurako, eta errepublikako gobernuak *Notizie Scritte* (albiste idatziak) izeneko berripaperak banatzen hasi zen herritarren artean, sultanarekin une horretan zegoen krisi diplomatikoaren berri izan zezaten.

Berripaperok eskuz idatzitako kopiak izaten ziren; inprenta dagoeneko hedatua egon arren, aurrerago hasiko ziren albisteak makinetan kopiatzen. 8-16 orrialde izan ohi zituzten eta asteroko maiztasunez kaleratzen zituen Veneziako gobernuak. Hasieran, esan bezala, gatazken, guduen eta tropen mugimenduen berri ematen zuten bereziki, baina irakurle nagusiak merkataria izaki, berehala hasi ziren albiste ekonomikoak ematen: salgaien prezioak, azoken nondik norakoak... eta salerosketa eskaintza batzuk ere agertu ziren tarteka, alegia, publizitate modukoak. Veneziarren ereduak azkar zabaldu zen. Alemanian, esaterako, albistearen eskuizkribuak banatzen hasi zen Fugger bankua, eta Erresuma Batuan gorteko berriak ere modu berean banatzen hasi ziren. Agintari politiko eta ekonomikoek garbi ikusi zuten informazioa beren interesen alde erabiltzea komeni zitzaiela.

Ez ziren lehenak izan. Julio Zesarrek



XVI. MENDEKO VENEZIAKO ERREPUBLIKAKO 2 SOLDIKO TXANPON HONEK JARRI ZION IZENA KAZETARITZARI.

CLASSICAL NUMISMATIC GROUP INC.

K.a. 69an agindu zuen Senatuaren jardunaren albisteak (*acta diurna, commentaria Senatus*) publiko egitea eta *acta diurna* horiek jotzen dira historiako lehen egunkaritzat. Baina erromatarren egunkari horiek ez ziren paperean idazten, metalean edo harrian baizik –gero eskribauk papiroan kopiak egin eta banatzen zituzten arren-. Eta gainera erromatarrek ez zuten informazio hori jasotzeagatik ordaindu behar. Veneziarrek, ordea, 2 soldi ordaindu behar zituzten *Notizie Scritte* eskuratzeko eta, beraz, Veneziar bihurtu ziren albisteak salgai.

Lehen aldizkari horiek ez zuten bide gehiegi ematen kazetaritza jardura ga-

ratzeko; inprimatzeko makinak emango zuen aukera handiagoa albisteak hobeto landu eta idazteko, eskuz kopiatzeak prozesuaren zatirik handiena hartzeari utzi ziolako.

Beraz, veneziar berripaperak ez zion kazetaritzari izaera eman; izena bai, ordea. Veneziako Errepublikan garai hartan erabiltzen zen 2 soldiko txanponari “gaxeta” esaten zioten Venetoko dialektoan eta, horixe zenez astekariaren prezioa, berripaperari hala esaten hasi zitzaizkion hirian. Gerora Italia osora zabaldu zen izena, “gazzetta” bihurtuta. Eta aurrerago, besteak beste, gurerak, “kazeta” moduan. ●

Esnearen abantaila ebolutiboak

Tollense ibaiaren bailaran (egungo Alemania) gudu bat izan zen duela 3.200 urte inguru, eta 1990eko hamarkadatik hona, 100dik gora gorpuren arrastoak topatu dituzte. Hildakoen gorpuzkinak aztertuta, ikusi dute zortzi lagunek laktosari tolerantzia ziotela eta gainerako guztiek, aldiz, ez. Gaur egun inguru horretako biztanleen %90ek jarraitu dezakete esnea hartzen

hautzaroa pasata ere. 120 belaunalditan halako aldea izatea izugarria da genetisten arabera. Friburgeko unibertsitateko Daniel Wegmannen ustez, “alde hori azaltzeko modu bakarra hautespen natural oso azkar eta eraginkorra da. Hau da, indibiduo tolerantetek askoz haur gehiago izan zituzten edota haur horiek bizirauteko askoz aukera handiagoak zituzten”. ●



STEFAN SAUER / TOLLENSE VALLEY PROJECT

"ETXeko LANDAREAK" JAKOBA ERREKONDOREN LIBURU BERRIA

Zaindu maite duzun hori

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Baratze edo lorategietatik kanpo badira, baditugu makina bat landare. Neronek oraintxe badituzt begi aurrean batzuk, hirugarren pisu honetan terrenorik izan gabe ere. Batzuk ikusten ditut balkoian, beste batzuk etxe barruan. Eta aurtengoan etxea ondo gozatzeara tokatu zaigun honetan bati baino gehiagori sumatu diot landareekiko gertutasun handiagoa. Badu drogatik pixka bat, badu engantxe puntua. Gehiagoren nahia. Jartzen duzu lehen landarea eta pixka bat mimatuz gero jasotzen duzu erantzuna. Eman eta hartu. Eta bazoaz bigarrenaren bila. Baina ba al dakigu nola zaindu, nola elikatu, nola hazi, nola ugaltu gure etxeko landareak?

Zalantza horiek guztiak eta gehiagor argitzen ditu Jakoba Errekondoren liburu berriak: *Etxeko landareak*. Etxe barruan izan ohi ditugun landare gehienak kanpokoak dira, tropikalak sarri. Udan fresko nahi eta neguan gozo, 20^o inguruan edukitzen ditugu barruak normalean eta tenperatura horiek natural dituzten bazterrak jatorri dituzten landareak ekartzen ditugu gurera. Gutartzen ditugu. Ordea, zainketa ere gehiago behar izaten dute loreontzietan.

Bi zatitan banatzen da bilduma: batetik, informazio orokorra, aipatuz landareen aukeraketa, zaintza lanak, ugalketa eta izan ditzaketen arazoak; eta bestetik, landareen fitxa tekni-

koak. 92 landare espezie daude jasota eta bakoitzetik barietateak hamaika.

EUSKAL IZENDEGIA

Elhuyar-ekin orain hogeita bost bat urte egina du antzeko lan bat Errekondok. Batetik besterako "saltoa", azpimarratu du besteren artean egileak, "landare bakoitzaren euskarazko izen proposamenean dago". Landarez landare bere jatorriko herrialdeko hizkuntzetako izenak bildu, aztertu eta euskarazko izena proposatzen da, lehenetsiz jatorrizkoaren esanahia.

Diseinuan egindako "esfortzu handia" nabarmendu du egileak, Dani Blanco argazkilaria eta Maitane Gartzandia diseinatzailearen lana goraiatuz. Erakargarria da liburua, irakurtzeko gogoia ematen du, bisuala eta hizkuntza errazean idatzia. Ez du ahaztu nahi izan Endanea Garden jardineritza zentroa, "lan hau osatzeko emandako erraztasunengatik".

Durango Azokarako zain egongo nintzen beste edozein urtetan, baina aurtengoan uste dut aurre hartu eta ARGIAren bidetik erosiko dudala: argia.eus/azoka helbidean edo 943 37 15 45 telefono zenbakira deituta.

Ni ere loreei hitz egiten dien horietakoa naiz. ●



ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Euskara komunikabidetan sustatu behar delako eta ARGIA bere horretan oso interesgarria delako.

Urteak daramatzat liburutegian irakurtzen eta etxean jaso nahi nuke".

Irungo Alazne

"Herri xehearen aldeko Euskal Herriko proiektu komunikatibo serioena delako".

Iruñeko Julio

"Aldizkariak gai sakonak eta interesgarriak lantzen dituelako, gertutasunagatik eta euskal kazetaritza bultzatzeko".

Markina-Xemeingo Alberto

"Proiektu interesgarria eta aberasgarria delako".

Bilboko Dabi

"Informazioa konpartitzeak libreago egiten gaituelako"

Bilboko Txabi

"Bere argitarapenen lanketa eta ildo atsegin ditudalako".

Urretxuko Mikel

GAZTAINAZ ZENBAT ZEKIEN AMATXIK?



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Irrikitan ginen eta etorri dira gaztainak lurrera. Irrikatu dira morkotsak eta barruko ale distiratsuak doi-doi erakusten ditu. Haien mutturra ikusi orduko gure ahoa ere irrikatu da.

Gaztaina bere jantzi dotorearekin azaltzen da beti: morkotsa, ahotza, lopetza, kormutsa, sokala, lakatza, koskila, mukutza, lokotxa, arbotsa, karloa, mardotsa, koxkola, garbotsa, mutxurra, oskola, arrotxa, atsoa, burutxa, sokorra, lakatza, kuxkuka, kroskoa, kirikioa, mokorra edo morkola. Katakoskola barruan hiru gaztain ale baino gehiago baditu. Beste hainbeste izen izango du, seguru. Jantzia dotorea da baina latza, arantzatsua. Esaerak hala dio: "Aita latz, ama beltz, larrua gorri, umea txuri: gaztaina". Beraz guretzako gaztain kolorea beltza da. Belztasun hori aipatzen du baita ere, Donamariako Sorameneko Sabina Carmen Sagardia Erneta bere amatxi zenarengandik ikasi eta Irungo Eztebe Gonzalez Larratxek sareetan erakutsi digun beste esaera batek: "Gaztaina handia, morkotsa latza, pikorra beltza. Aita handia, ama latza, semea beltza". "Egur bereko ezpala" esan nahi omen du.

Pertika edo hagarekin jo eta hagatzen da gaztainondoa (*Castanea sativa*) gaztainak lurreratzeko. Moiltze horri "gaztaina moztu" esaten zaio, eta "gaztaina mozte" eta "gaztaina mozketa". Moiltzea edo eraistea edo inaustea edo inarros-tea edo...

Gaztaina-mozte eguna egiten dute Bakaikun. Izugarritzko jakintza izan da gaztainondoari lotutakoa, baina toki askotan ia erabat galdua da. Sakana alde horretan ari dira kultura horri eusten eta jaso eta zabaldu nahian. Baita beste toki askotan ere: Arantzan bertako bariatateei eusteko lanean ari dira, Apanizen Gaztainaren Jaia egiten dute bertako Izkiko Parke Naturalean duten ondare horri eusteko eta erakusteko. Adibidez, gaztain bariatateen izenak:



latxa, trumoi-intxaur, abadinau, kerremeatz, atalo, aita handi, amabirjina, andramari, mentugorri, antzuela, legerio, legerio beranduko, berdina, jolepetxa, goiz gaztaina, Arrate, Sanagustin, betulaza, horitxo latxa, txerka zuria, txar-goi, orribeltz, hostobeltz, iruria, iduria, iñarmentua, aritzaua, bettargia, gozoa, morkolarz, morkotea latza, meauregorria, otañu, argiñorda txertua, lesakarra, danbolatsa, muizuar, lopetxa, larramua, eradegea, Lete, marki, Frantzia gaztaina, elorri gaztaina, kirrimahatsa, berdea, txakarro, Sanmartin, roketarra, kirrimetz, mantulu, lopetxa txikia, berdola, anbultsa, ezlebera, ibalamendu, landar, inurri handia, inurri zuria, inurri beltza, ederra, hobeia, herria, garrangira, bele-mendu, saboia, migelara, mentumotz, mendolatz, zazpiekoa, arbera, metura, ibar beltz, atso-gaztaina, tipia, iguridi, amalatz, marki, ulezuri, ulebera, basaka, mentuxe, ahuntz-gaztaina, bentugorri, berandu-markol, saldaimentu, probentzi, txapardo, iruerreketa, birregi, garrangira, markola, arbera, ilaundi, tartalo, txirikorda, landa-gaztaina, porkaletxa, zakarro, iparra, beranga, irarmentu, kirimeatz, txertogorria, ulara-

ba, otzorpo, atso-mokor, atso-morkots, mentutxe, usta, guarramatza, Sanmiguel, mentularria, Azkoiti gaztaina, Azpeiti gaztaina, atso-markots, hirunakakoa, legerioa, bakarra, irunako, itsu-gaztaina, zubiaga, txerri-gaztaina, Bizkai-gaztaina, Bizkai-zuriegia, zuatzola, mentumotza, enpeltuko gaztaina, sarobe...

Bateren bat ezagutzen al duzu? Seguru besteren bat ere baietz, ezta? Horra gaztainaren gure kultura izugarria.

Gaztaina-zigorrarekin arbola jo eta gaztainak jaistean, matxarda edo matxarra edo matxola edo martxakularekin bildu, hespilean jaso, morkots eta guzti, neguan ahalik eta luzeen iraun dezaten. Gero morkotsak berez arrakalatu, aginzabaldu, azarrakatu edo alegorritu ez badira geuk aletu behar. Aletu edo gurbildu, irakurri, mihurtu, kurkuldu, kozkildu, urbeldu, jalkitu, urgaldu, bikortu edo garandu. Marpildu, mazpildu, altsitu, salmiztu, sakailatu, ximenkatu, baldiztu, hozkaildu, matxikatu edo koskatu eta erretea edo egosita jateko. Edo ta garai batean bezala, jo eta irintzeko. Lan horien guztien bitartean makina bat kultura jango dugu. Izan ere, gaztainaren kultura ez da morkots ilupa. ●

ZABALORTU

AUZOAN KUDEATUTAKO GUNEA
GASTEIZKO ZABALGANANGARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Duela hamar urte inguru sortu zen Gasteizko Zabalgana auzoa, eta bertako auzokide talde baten ekimenez bost urte geroago jarri zuten martxan Zabalortu proiektua: “Baratze ekologiko eta autogestionatua martxan jartzea hasieratik genuen buruan, eta Udalarekin adostuta lur eremua lortu genuen duela bost urte”, dio Gorka Perea Salazar proiektuko kideak. Horrela hasi zen auzo-baratzea lehen pausoak ematen, eta orain, auzotarrei Zabalortu txiki gelditu zaienez, egitasmo berri bat sortzeko bidean daude: Ortubi. Udalak ez dio auzoaren eskaerari erantzunik eman oraindik, ordea.

60 LUR EREMUKO ESPARRUA

Hasieratik lagun talde nahiz elkarte ugari batu ziren Zabalortu proiektura, eta guztira 60 lur eremu lantzen dituzte auzo-baratzearen esparru zabalean. “Zabalortu elkarteak izan zen lur eremu zabala kudeatzeko Udalaren lehiaketara aurkeztu zen bakarra hasiera hartan”, azaldu du Pereak. Gutxienez bost pertsona osatutako taldea izatea eskatzen du elkarteak lursailak esleitzerakoan, eta hainbat irizpide dituzte kontuan: elkarte soziala izateak edo auzoko biztanle izateak, esaterako, puntu gehiago ematen dizkie lurra landu nahi dutenei.

Bertan lanean ari diren 60 taldeek



badituzte bete beharreko baldintza batzuk ere: eredu ekologikoan ekoitzi beharra dute, inongo kimikorik erabili gabe: “Zabalortuko proiektuan parte hartzeko formazioa minimo bat jasotzea ezinbestekoa da gaur egun, eta borondatezko ikastaro asko ere antolatzen ditugu”. Ikastaro ofizialez gain, baratzea egiten duten taldeen eta auzokideen artean sortzen diren harremanek eta partekatzen dituzten ezagutzek asko aberasten dute egitasmoa, bultzatzaileen arabera.

**ORTUBI PROIEKTUA MARTXAN
JARTZEKO DEIA UDALARI**

Azken urteotan auzo baratzeak hartutako martxa ona eta eskaera bazegoe la ikusita, proiektu berri bat abiatzea erabaki zuten auzokideek: Ortubi baratzea. “Gasteiz Hobetzen programa-

ren barruan, proiektu ezberdinentzat eskaintza egiten da, eta bertan hiritarrek Ortubi proiektua aukeratu zuten 2018an”. Proiektu honek Zabalgaina auzoko Orinbizkarra inguruan beste baratze autogestionatu bat sortzea du asmo, Zabalortu txiki gelditu dela-eta.

Bi urte daramatzate Zabalortuko kideek Gasteizko Udalarekin hizketan eta egitasmoa plazaratzen, baina Udalaren partetik inolako urratsik ez dela eman salatu dute: “Udalak daraman ekologiararen inguruko ardatz estrategikoaren baitan, ez dugu ulertzen Ortubi bezalako proiektu bat, kostu gutxikoa eta errentagarritasun handikoa, martxan ez jartzea”. Horregatik, herritarrek bozkaturakoari lehenbailehen erantzuna eman eta Zabalganako auzoari beste baratze esparru bat esleitzeko eskatu diote Udalari. ●

**Goizper Group**

Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago berrikuntzak egiten eta ingurumenarekin konprometituta.



Industrial



Ihaztadura



Bioteknologia





PORTBOU 1940

WALTER BENJAMINEN AZKEN ORDUAK

“Inork ezagutzen ez nauen Pirinioetako herri txiki batean bukatuko da nire bizitza”. Hitz horiexek izan ziren Walter Benjaminek idatzi zituen azkenak, 1940ko irailaren 25eko gauean, orain dela 80 urte, beraz, bere buruaz beste egin aurretik. Hiltzeko erabakia hartzera zerk eraman zuen jakiteko, bizirik eman zituen hondar orduak berregin ditugu.

 ARITZ GALARRAGA

Balirudike Walter Benjamin (Berlin, 1892 - Portbou, 1940) derrigorrezko erreferentzia bilakatu dela mundu intelektual eta, batez ere, sasi-intelektualean. Ez dago testurik haren zita batek edertuko ez duenik -beteko balitz bezala Miguel Sánchez-Ostizen sententzia hura: “Hobe da tira egitea prestigiozko zita-bildumari (faltuak tartean), nork bere kabuz pentsatzea baino”-. Benjamin irakurtzea, ulertzea eta asimilatzea jada beste gauza bat da -hasteko, ez baita batere erraza hiru horiek egoki egitea, hain zen bereizi, askotariko, berezia haren obra-. Eta zita batek edertzen badu edozein testu, pentsa zer eragin izan dezakeen Benjamini buruzko artikulu oso bat idazteak artikulu hori idatzi duenaren. Prest nago ondorioak, direnak direla, nire gain hartzeko.

Hainbeste idatzi zuen, hainbeste idatzi da hari buruz, zeozter ulertzen saiatzeko, osotasuna ezin eta zatia hartzea izan daitekeela onena, otu zaigu, pasadizo bat aukeratzea, pertsonaiaren osotasuna intuitzen saiatzeko. Zatia, hain zuzen, Frantziatik Espainiara, Ipar Kataluniatik Hego Kataluniara, Banyulsetik Portboursa egin zuen ibilbidea izango da, egin zuen azkena, ustez heriotzatik bizitzara izan behar, baina azkenerako bizitzatik heriotzara izan zena: oinez, paperik gabe, ihesean osatu zituen Banyulsetik Portboursa dauden 15 kilometro luze eta malkartsuak. Ona omen ariketa fisikoa egitea, ez zaigu besterik bururatu: 80 urteren buruan, hain justu 2020ko irailaren 25ean, Benjaminek egin zuen bidea berregitea.

Trenet iritsi gara Banyuls de la Merenda udalerrira, irailean oraindik udatiar, bertako upategietan egiten

den ardoagatik ezagun. Baina Portbouko geltokian jada, Europar Batasuneko bi estaturen arteko muga pasa aitzin, ikusi dugu lehen irudi kolpagarria: Erdialdeko Asiakoak diruditen pertsona batzuk, agian afganiarrak, trenbidetik, zaku astunak bizkarrean, tunelean barrena muga pasa nahian. Eta, noski, bestaldean, Cerveran, polizia frantsesa da goeneko mobilizatuta, haien esperoan. Benjaminek ibili zuen bidea, garaiaren arabera, iparretik hegora egin izan baita, baina baita hegotik iparrera ere. Kontrabandisten pasabide zena, 36ko gerako iheslariak Espainiatik Frantziara ihes egiteko erabili zuten; II. Mundu Gerra lehertu zelarik hasi ziren iheslariak kontrako norabidea hartzen. Eta hor garrantzia berezia dauka izen batek, Lisa Fittkorenak, 1940ko irailetik 1941eko apirilera 100 lagun inguru lagundu baitzituen mugaz bestaldera, astean bizpahiru irteera. Walter Benjamin izan zen pasatzen lagundu zuen lehena. Eta, zorritzarrez, helburua erabat lortu ez zuen bakarra.

1933tik zeuden Frantzian Benjamin, Fittko, beste alemaniar asko eta asko bezala. Judutarra lehena, nazien kontrako borrokan engaiatua bigarrena, motiboak soberan zituzten biek ere Alemaniak kanpo egoteko. II. Mundu Gerra hastearrekin, ordea, arazoak areagotu zitzaizkien Frantzian, kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten, Euskal Herri ondoan zegoen Gursekoan Fittko, Hanna Arendetekin batera, Fittkoren senarrarekin batera Benjamin, beste kontzentrazio-esparru batean. Lortu zuten horietatik ateratzea, baina kanpoan egoera ez zen askoz samurragoa. 1940ko irailean, gainera, Alemaniarako deportazioak hasiak ziren jada. Frantziatik alde egitea erabaki zuen Benjaminek, ez zuen beste aukerarik ikusten, bizitza salbatu nahi bazuen. Lisboako portua helburu eta Estatu Batuetara eramango zuen barkua hartzea, Espainia eta Portugal zapaltzeko baimena lortu zuen, ez Frantziatik ateratzekoa. Ilegalki egin behar, beraz. Eta mendiz. Hori zen irtenbiderik segurua. Aurretiko abisurik gabe agertu zen Benjamin irailaren 24an Fittkoren etxean. “Barka molestatzeko, anderea, zure senarrak esan dit Espainiako muga pasatzen lagunduko didazula”.

BANYULS

Herriko azken etxeak utzita, bidea hasten da mahasti artean gora. Auskalo aldaketa klimatikoagatik, mahats-bilketa egina

dago jada, ezin izan gara ezkutatu mahats-biltzaileen artean, gure iheslariak egin bezala. Kuriroski, hasiera-hasieran ikusi ditugu bide guztian zehar gurutzatuko ditugun pertsona bakarrak, noski mahasti batean, bikote gazte bat, Pariseko jantziz, jabe denaren ibileraz. Eta agian, gutaz gain, beste inork ez zuen egin Benjaminen bidea 80. urtemugan –badugu bilobei kontatzeko istorio bat–. Efemeridea aski esanguratsua izaki, espero genuen pertsonaiaren inguruko masa-pelegrinazio bat. Bada azkenerako gu izango gara pelegrinazio hori egiten bakarrak, gu sinesgabeok, fedea behar den arren aurrean ditugun aldapei ekiteko.

Hasiera partean bidea ez da jarraitzen erraza. Pixka bat intuizioz, asko bat

GPSaren laguntzaz, egiten dugu aurrera. Ugariak dira bideak, bidexkak, tupustean bukatzen direnak, sarri inora ez daramatenak –Sánchez-Ostizek kargu hartuko liguke berriz: “Ez dago inora ez doan biderik; zuk ez badakizu bide bat nora doan, hori zure arazoa da”–. Benjamin parafraseatuz, ordea, ez dago mendi-xendarik basakeriaren lekuko ez denik; beraz, unean egokiena iruditzen zaiguna hartuta jarraitzen dugu gora. Ez zaigu erraz egiten, halaber, Benjamin bide aldapatsu hauetan irudikatzea: 48 urteko, baina bihotzeko arazoekin, nekez egingo zuen aurrera. Maleta pisutsu bat zeraman, gainera, Portbouko maleta gisa bataiatua izan dena, harrigarriro inork inoiz gehiago ikusi ez duena. “Nire



NÚRIA JUAN SERRAHIMIA



Hannah Arendtek Benjamin hil eta denbora gutxira hilerria bisitatu zuenean, iruditu zitzaion "inoiz ikusi dudak lekurik eder eta miragarrienetako bat". / NÚRIA JUAN SERRAHIMA



NÚRIA JUAN SERRAHIMA

azken eskuizkribua daukat bertan”.

Halako batean bukatzen dira mahasiak, eta hasten da mendikoago izenda genezakeen ibilbidea. Mugako guardiek zaintzen zuten gandorraren azpitik egiten da denbora guztiz, gehiegi igotzen ari zarela irudi gabe, baina izterrak galanki nekatzen direla. Eta espero dut Benjaminek zorte hobea izatea, ze guri tokatu zaigu tramontana, Brassensek aipatzen zuen haizeetako bat, segur aski bortitzena. Ez dago atzera bueltarik, ordea. “Egiazko arriskua pasatzen ez saiatzea litzateke”. Igoeraren une honetan, galdera: Fittkok bere memorieta egotzen dizkion lauzpabost esaldietatik aparte, zer izango zuen Benjaminek gogoan, mendian gora zihoala? Arriskuaz kontziente, egingo zion bere bizitzari errepasoa? Berlingo haurtzarora oroituiko zuen, hainbat testutan egin bezala? Agian soilik gauza praktikoetan zeukan burua, arnas hartu, taupadak apaldu, zigarro bat erreko nuke gustura. Aldapa betean zaila da pentsamendu pisuagoak edukitzea, nahiko lan izango zuen oinaren atzetik jartzeko oina. Pentsatuko al zuen gehiegi zaindu ez zuen semearengan? Malkarretan, Walter Benjamin filosofoa baino, errazago irudika daiteke hezur-haragizko pertsona, bere hauskortasunean.

Eta, konturatzerako, iritsi gara lepora, Frantzia eta Espainia bereizten diren le-

kura –kartografiak hala dioelako, beste-lako arrastorik egun ez baitago–. Muga, ikusezin, existitzen da, mugikorrean sartuko zaizu zure konpainia espainiarra. Auskalo haizeteagatik, auskalo Gestapokoek gu harrapatzeko beldurrik ez daukagulako, baina ez dugu gehiegi disfrutatu ikuspegia. Ez Lisa Fittkok bezain:

Zer izango zuen
Benjaminek gogoan,
mendian gora zihoala?
Arriskuaz kontziente,
egingo zion bere
bizitzari errepasoa?

“Bestaldean, parez pare, kristal turkesazko xafila baten gainera bortizki erortzen diren harkaitzak”. 14:00ak inguru ziren iheslariak lepora iritsi zirenean. Kontuan hartuta goizeko 7:00etan abiatu zela Benjamin, zazpi orduan egin zuen goranzkoa, bidearen erdia. Gaur eguneko baldintzekin, Gore-Tex eta abarrekoekin –gugan bego, Robert Gore jauna–, Benjamin baino urte batzuk gutxiagorekin eta, ustez, osasun hobearekin, pare bat ordutan egin daiteke. Baita, gu beza-

la, lehen solairurako eskailerak igotzera soilik ohituta dagoenak ere.

Beheranzko bidea Fittko gabe egin zuen Benjaminek, baina galbiderik ez da, begien bistan izan dugu uneoro Portbouko badia. Baita, luzamendutan ibili aurretik, oinen azpian herria bera ere. Desertua. Gezurra dirudi Benjamin bertan hil zela gaur 80 urte. Ostiral arratsaldea da, ados, udazken giroko lehena, baina haren zitak zenbat jende erabiltzen dituen ikusita, uste genuen fansen bat behintzat bilduko zela. Keba. Hotel de Francia zena atzean utzita –“Etxe honetan bizi eta hil zen Walter Benjamin”; “bizi”, egia esan, ordu gutxi batzuek bakarrik, baina tira–, Comodoro izenekoan hartu dugu ostatu; erosotik gutxi duen arren, gaua pasatzeko nahikoa. “Irteerarik gabeko egoera batean, amaitzea beste erremediorik ez dut. Inork eza gutzen ez nauen Pirinioetako herri txiki batean bukatuko da nire bizitza. Goraintziak eman Adorno lagunari, eta esan, otoi, zein egoeratan nagoen. Ez dut aski denbora nahiko nituzkeen eskutitz guztiak idazteko”. Horiexek izan ziren Benjaminek idatzi zituen azken hitz guztiak. Frantziara itzuliko zutela esan baitzion Espainiako poliziak. Hala erabaki zuen bere buruaz beste egitea. Suizidioa ez nuke esango dela etsipenezkoa, baizik protesta. Bere heriotzak ahalbidetu zuen gainera beste askoren askatasuna.



80 urte geroago, iparretik hegora orde, hegotik iparrera joan nahi duten pertsonen irudi kolpagarria Portbouko tren geltokian. / NÚRIA JUAN SERRAHIMA

PORTBOU

Biharamunean, satisfazioa, lortu dugu Benjamin baino urrunago iristea: esnatu gara. Eta Portbou herriari egin diogu bisita. Hasteko, nazioarteko tren estazioari, bertara joan baitzen Benjamin poliziari paperak erakustera, bertan hartu nahi baitzuen Madriler a eraman-go zuen trena, Madrilen Lisboarakoa. Lehen kolpean, eta bertatik bertara, desproporzioa, herriaren eta estazioaren artekoa, gorputzari atal bat izugarri handitu, hanpatu balitzaio bezala, munstrokeria. Bezperako afganiarrik ez, baina gazte arabiar batzuk ikusi ditugu gaur, ezker-eskuin, artaga, Perpinya ze norabidetan dagoen galdezka. Egon gara esatekotan Walter Benjaminek duela 80 urte egindako bidea desagitea daukabela, seguru izango zaiela seguruagoa. Ezer esan gabe, orde, jo dugu hilerrira.

Hannah Arendtek, ihesean bera ere, Benjamin hil eta denbora gutxira hilerria bisitatu zuenean, iruditu zitzaion “inoiz ikusi dudak lekurik eder eta miragarrienetako bat”. Esaten dute heriotzak denok berdintzen gaituela, baina bista hauek ez dituzte hildako guztiek izango. Bertan dago Benjaminek eskainitako memoriale ere, eskuarki artelan publikoekin gertatzen denaren kontra, aski erakargarria: itsaso harrora jaisten diren burdin herdoilduzko laueroi bat eskailera. Eta behean bidaia honi beste

dimentsio bat ematen dion idatzia: “Zerregin nekezagoa da jende anonimoaren memoria ohoratzea pertsona ospetsuena baino. Eraikuntza historikoa izenik ez dutenen izenean egiten da”. Benjamin ez da anonimo, orde, nahiz ezagutu jende gutxi ezagutzen duen –zitatzen duen jendearekin alderatuta bederen–.

“Inork ezagutzen ez nauen Pirinioetako herri txiki batean bukatuko da nire bizitza” idatzi zuen Benjaminek bere buruaz beste egin aurretik

Eta Portboun hildako ilustre bat daukate, baina fardela dirudi, ez dakite oso ondo zer egin harekin. Ikerketa zentro bat iragartzen dute, auskalo noiztik. Asteburu honetan, hain zuzen, jardunaldi batzuk egiten ari dira, hizlariak beren motoa saltzera etortzen diren horietakoa, omenduarekin harreman eskasa izan ohi duten mintzaldi, performance

ikuskizun, irakurraldi poetiko eta hala-koak. Noski ez gara gerturatu ere egin. Bien bitartean, Pirinioetako herri txiki honek mota guztietako zintzilikatuak erakartzen ditu, beren irudimena askatzeko bezain espezial direla sinesten dutenak, kaleetan ikusgarri denez. Benjamine buruzko *escape room* bat eskaintzen hasi, baina bertan behera utzi zuten behintzat.

“Ez nuen hain tristea irudikatzen Portbou”, idatzi zuen zutabe batean Iñigo Aranbarrik. Triste da Portbou, bai, ki, areago, deprimentea erabat, txantxa makabroa onartzen badidazue, suizidatzeko leku ezin hobea. Sekula ezer gertatu eta gertatuko ez dela dirudien lekua. Munduaren bukaera. Irun-Hendaia mugaren beste muturrean, Hondarribiaren beste puntan, Biriaturekin senidetuta, leku horien guztien ifrentzua dirudi. Baina Historiak leku bat gorde dio, igarobide, pasaleku gisa, nahiz Benjamine kasuan izan bizitzatik heriotzarakoa. Mediterraneo ere parez pare du, gaurko egunean milaka eta milaka iheslariren hiltoki. 1940, 2020, egoera ez da hain diferentea: “Zapalduen tradizioak erakusten digu egun bizi dugun ‘salbuespen egoera’ arautzat jo dezakegula”. Hartara, pentsa daiteke Portbou bilakatzen zaigula pasaleku guztien sinbolo. Eta Walter Benjamin, berriz, iheslari guztiena. ●

LEE KRASNER ETA LYGIA CLARK

Bidea urratzen

Ez da ohikoena Guggenheim bezalako museo batean bi emakumezko artistaren bakarkako erakusketak aldi berean ikusteko aukera izatea. Beraz, aitzakia hau baliatuta, museora sartzeko bidesaria ordaintzeak merezi duela esango dugu. Lee Krasner margolariaren atzera-begirakoan aurkituko ditugun obrak eta Lygia Clarkek 1950eko hamarkada bitartean margotu zituen lanak parekatuz gero, elkarriketa eta irakurketa amankomun interesgarriak suertatzen dira.

 JONE ALAITZ URIARTE

Latitude ezberdinetan jaio eta heziak, Krasnerrek New Yorken egin zuen bere ibilbide artistikoa, Clarkek aldiz Brasilen. Sorlekuak berebiziko garrantzia izango du beraien lanak inskribatzen diren korrante artistikoaren influentzia ulertzeko: Krasnerrek New Yorken borborrean zegoen espresionismo abstraktuan aurkituko du bere lekua, eta Lygia Clarkek, berriz, abstrakzio geometrikoan eta arte konkretuan bilatuko du garai honetako ekoizpenak garatzeko esperimentazio esparrua.

Lee Krasner (New York, 1908-1984), New Yorken sorburua izan zuen espresionista abstraktuen taldeko emakume bakarrenetarikoa izan zen –misogino ospea izateagatik ere pasa da historia-talde ilustre hori-. Etorkinen familia errusiar judu ortodoxo batean hezia, gaztetatik hasi zen artea ikasten eta margolaritzan espezializatzen, besteak beste Hans Hoffman artistarekin, zeinak Europatik kubismoaren eta fauvismoaren inguruko influentziak zekartzan. Irakasleak behin, bere pinturak gorai-patu nahian, esan zion inork ez lukeela asmatuko margo horiek emakumezko batek eginak zirenik. Tankera honetako komentario eta jarrerak sarri jasan behar izan zituen, eta horregatik egin



LEE KRASNERREN *COMBAT* (1965). THE POLLOCK-KRASNER FOUNDATION.

zuen bat, besteak beste, *Women in the Arts* kolektiboarekin. 1942. urtean, beste espresionista batzuekin batera, *French and American Painting* talde erakusketa mitikoan parte hartu zuen. Bere bakarkako erakusketa urte dezente berandua-go helduko zen, 1951ean.

Bilboko erakusketan fantasia eta kolore biziko mihiseak gailentzen dira, neurri handikoak gehienak, bere baitan harra-patzen zaituzten horietakoak. Zikloka

lan egiten zuen artista zela nabari da, eta bizitzan bizi izan zituen egoerek marka utzi zuten bere ekoizpenean. Pintura biografikoa egiten zuela esaten zuen, idazteko modu bezala erabiltzen zuela margoa eta batzuetan hitzez eta ekintzaz esan eta egin ezin zituenak brotxakaden bitartez egiten zituela: gorrimin-alizarinaz batzuetan, okrearekin beste batzuetan. Ezkondu eta emazte rola hartu zueneko koadro txiki eta gris kolorekoak daude,

handiagoak izan ezin zitezkeenak bere senarrak etxeko estudio bakarra okupatzen zuelako, ezta koloretsuak ere, sortze-krisialdi batean murgilduta zegoelako. Springsera (Long Island, AEB) aldatu zen eta bertako lasaitasunak eta basoetako kolore eta formak irudikatzen dituen ekoizpen ziklo bati bide eman zion ondoren, zeinean kolore okrea, marroixkak eta horiak gailentzen diren. Badago ere insomniaok jota, lo egin ezinik gaueko ordu txikietan margotzen hasten zeneko koadro seriea, kolore ilunekin egindakoa, kolore bizietarako egun argiko argia ezinbestekoa egiten baitzitzaion. Margo hauei *Night Journey* izena eman zien Richard Howard bere lagun eta poetak.

Europara ere bidaiatu zuen Krasnerrek eta handik ekarri zituen kubismoaren formekiko interesa, Matissek kolorearekiko zuen tratamenduarekiko maitasuna eta Mondrianen forma geometrikoekiko miresmena. Azken honekin beste pasio bat zuen amankomunean: jazz musika dantzatzea gaueko ordu txikietara arte. Ez zen erreza izan Jackson Pollocken emaztea izatea, ezta honek egiten zion itzala kudeatzen jakitea -1949ko *Life* aldizkariaren azalak hala zioen: "Bera al da AEBetako artistarik handiena?", Pollocki erreferentzia eginez, alegia-. Horregatik aritu zen etengabe gogor lan egiten, bere talentuan sinisten eta burugogor ekiten bere arteak lekua izan zezan (emakume) gutxi batzuentzako pentsatua zegoen garai hartako arte eszenan. Badirudi denborak justiziaz jokatu duela berarekin.

Hego hemisferioan aldiz, gauzak beste modu batekoak ziren, eta Europatik, eta ondoren Estatu Batuetatik zetorren arte modernoari erresistentzia denbora luzez egin zitzaion. Horregatik esan daiteke Lygia Clark (Belo Horizonte, 1920-Rio de Janeiro, 1988), II. Mundu Gerra osteko panorama hegoamerikarrean abstrakzioan aitzindaria izan zela. Abstrakzioaren aldaera geometrikoena landu zuen eta Europatik zetorren hura puntu periferiko batetik berrinterpretatu zuen. *1948-1958 Pintura eremu experimental gisa* erakusketan, batez ere forma geometrikoekin esperimendatutako margoak aurkituko ditugu, bariazio, bertsio eta segida ugaritan errepikatzen diren ariketak diruditenak. Europara egin zuen bidaiarekin, denboran Krasnerren bidaiarekin bat egiten duena, ikuspegi espazialarekin jolastu zuen eta joera arkitektonikoa zuten Fernand Léger



LYGIA CLARKEN *COMPOSIÇÃO* (1953), PATRICIA PHELPS DE CISNEROS-EN BILDUMA. "THE WORLD OF LYGIA CLARK" ELKARTEAREN KORTESIA.

eta Mondrianen (berriz ere) sorkuntzek ukituko dute gehien. Hauen influentzia nabarituko da ondorengo ekoizpenetan.

Krasnerren margolanetan inpultsua eta bat-bateko espresioa nabari bada, Lygia Clarken margo hauetan zehaztasuna eta kalkulu ia aritmetikoa gailenduko dira; hori bai, geometriak ematen dituen aukera guztiak arakatuz: positibo eta negatiboen arteko tentsioaren baliogabetzea, hutsa eta betearen arteko binomioa puskatzen saiatzea eta mihise batean nahasten dituen koloreen arteko konbinazio eta barietate guztiak probatzea. Probak eta esperimentazioak dira.

Pinturan forma geometrikoekin egindako saiakera hauek guztiak ikasketa izan ziren urte batzuk geroago hain ezagun bilakatuko zuten *Bichos* (Zomorroak) objektuak egiteko. *Zomorro* deituriko hauek metalezko planoekin egindako objektu geometrikoak dira, bitartekari gisa funtzionatzen dutenak ikuslegoari esperimentzia sensorial berriak eskaintzeko. Ukitu eta manipulatu daitezkeen artelanak dira. Clarkek ildo honetatik eraman zuen bere interes artistikoa eta geroago objektua desagerrarazi eta gorputzari eman zion protagonismo guztia, artea metodo terapeutiko bezala erabiliz. ●



LIBURUA

Musikak plaza bete zuenekoa



HANS ETA IGELA

INAZIO MUJIKA IRAOLA

ILUSTRAZIOA:

MAITE GURRUTXAGA

EREIN, 2020

XABIER ETXANIZ ERLE

Pikotxean izeneko bilduma berriari eman dio hasiera Inazio Mujika Iraolak idatzi eta Maite Gurrutxagak ilustraturiko liburu honek. Eta alde horretatik esan behar dugu pozgarria dela bilduma berria plazaratzea, baita aspaldian haur eta gazte literaturatik urrun zeuden idazleak bueltatzea ere –Mujika Iraola eta Anjel Lertxundirenak dira orain arte argitaratutako bi liburuak, bai eta iragarri diren hurrengo biak ere–.

Hans mutila dugu istorio honetako protagonista nagusia; bera eta berarekin dabilen igela. Europako ipar aldeetik datorren mutilak motxila erantziz eta sagar bat jateari ekiten dio plazako arkupeetan. Eta plaza horretan jazotakoa dugu liburu honetako kontakizuna, izan


ere Hans, ateri denean, plaza erdian hasi baita biolina jotzen; berak musika jo eta igelak saltoak eman.

Apurka jendea inguratzen hasten da Hans eta igelaren ondora, hasieran bakar batzuk, geroago beste batzuk gehiago... harik eta pilatutako jendetza ezin mugitu arte. Eta orduan hasten dira komerriak, alkatea ere tartean, mugitu ezin diren horiek denek plaza husteko, lagun horiek denak handik irteteko.

Deigarria da Mujika Iraolak darabilen hizkera, kontakizunari ematen dion erritmoa eta nola jolasten duen hitzekin: "Igandero dantzara agertzen zen dantzazale aparta, ttuttunero besomotza, bixigu begiak zituen arrantzalea eta beste asko eta askorekin berrogeita seiren bat bai, joan den astean plazako teiltuan

umeak egin zituen katua ere kontatuta". Istorio honen kontakizunean garrantzi handiagoa hartzen baitu, zalantzarik gabe, nola kontatzen den, zer kontatzen den baino. Gertakari sinple hori, plaza bete eta hustu beharra, umoretik, jolasetik, ironiatik eta komentario kritikotatik ere narratu izan digulako idazleak.

Hans eta igela berehala irakurtzen den istorioa dugu; arina argumentuan, erakargarria idazleak darabilen estiloagatik, entretenigarria istorioaren nondik norakoagatik eta ikusgarria Maite Gurrutxagak ilustrazioen bidez egiten duen jolasagatik. Lastima azken irudiak *spoiler* bat egitea eta hurrengo orrian testuan ageri dena aurreikustea; baina akats txiki horrek ez du, inola ere, liburu honen interesa gutxitzen. ●



MUSIKA

Motibazioaren zirrikituak



IKER BARANDIARAN

Sorkari 2017an Iruñerrian sortutako musika talde gaztea da, atzo bertan sorpresaz deskubritu eta orriotara ekarri dudana. 2018an hasi ziren zuzenekoak ematen eta 2020an –pandemia bertean– argitaratu dute honako diskoa, beraien ibilbideko lehena. Badute meritua, egiten duten horretan sinesten dutelako.

Harritu nau nabarmen taldearen soinuaren irmotasunak, ahotsaren indar eta gardentasunak, baita pose eta tribuetatik harago, taldekideek duten look sobrioak ere, tendentzia edo sonoritate jakinekin lerrokatzen ez dena. Azken hori da garaiak aldatu diren seinale argia, akabo lerrokatze eta “mozorroak”.

Gazteak badira ere, izan dituzte bestelako musika esperientziak eta gaur

egun oraindik ere haietako bi Lubaki (Adrian) eta Skabidean (Lorena) musika taldeetan ari dira, baina arras desberdinak guztiak. Dena den, gogo handiz hartu dute Sorkari eta disko borobila kaleratu dute. Dena den, kon-tuz, Lorenaren ahots ikaragarria gai da taldearen indarra eta emaitza instrumental konpaktua estaltzeko, adi oreka horri.

Ez aldarri argia da, mihian inongo ilerik utzi nahi ez duena, eta soinuari dagokionez Buenawixta punk-rock eskolan erraz asko erditu ahal zitekeena. *Ikusleari* gitarreroagoa da, ez hain bortitza eta hard-rocketik ere edanez hita bihur daiteke. *Astunegi* azkarra eta indartsua, erritmo bizikoa, baina azalean



HUTSUNE

SORKARI

AUTOEKOIZPENA

darama zama malenkoniatsua itsatsita. *Mila aukera*-k badu abiadura itzeletik eta melodiatik, Discipulos de Dionisos eta Screaching Weasel oinarri balitu moduan. *Kilima* stonerra da, pisutsua eta Lorenaren ahotsa desertuan barre-na luzatzen eta kiribiltzen; ederra! *Zer arraio*-k oinarri indartsu, ia industrial eta rockeroa dauka, eta nire burua ia “Sua, sua” oihuka ikusi dut Kuraia gogor-araziz. *Lehen platera*-k dauka Cosmic Psychos-en *Lost Cause*-en riffa baina 1977ko punk-rock azkarrenean amiltzen da gero. *Hutsune* punk-rock-and-roll oso gitarreroa da. Eta azkenik, *Gidoia*, 80ko hamarkadako ukitu zirika-tzailea daukan punk-rock eta hard-rock koktela. ●



Amildegia ertza zirikatu nahian

MARTA SENDIU ZULOA IRUDIA LIBURU-DENDA

Hala Bedi Irratiko mikroen herroiek, Herr Mundinak eta Maese Cthulhuk, *Desde el abismo: The Disappointing Exposition* erakusketa aurkeztu dute Gasteizko Zuloa Irudia liburu denda ezagunean. Mundinaren ilustrazio psikotronikoak eta Cthulhuren collage lotsagabeak biltzen ditu espazioak, mundu berri eta hobeari atea irmotasunez irekitzeko.

Izen bereko irratsaioko uhinetatik Zuloako satora egin dute salto bi artista grafikoek. Horma zuriak tentakuluz eta kolore beltzez marraztu dituzte, baina haien umoreak bizia ematen dio kutsu *underground*-a gainetik kendu ezin duen irudi bilduma honi. Bi ildo nagusitzen dira areto txikian: Mundinaren iruditegian gizakiak ageri dira, edo behintzat gizakiari gerturatzen zaizkion izaki bizidunak eta, Maeseren kasuan aldez, hitza

da ardatza eta ingelesa nagusitzen da haren slogan zirikatzaileetan. Pertsonaia eta logotipo famatuak ironia ukitua ematea da haren berezitasuna.

Barre algarra oinarri, kritikotasuna lantzea da erakusketaren xede nagusia, eta horretarako hainbat gai erabiltzen dituzte: COVID-19a, VOXeko Abasca len ezjakintasuna, Iturgaitzen euskara maila, Espainiako erregearen bizi estilo ulertezina, Pablo Iglesiasen komunismoa, eta abar. Maeseren lan esparrua kritikoa, intelektuala eta burlatia da, sekula pentsatuko ez zenituzkeen ideiak ageri dira haren koadroetan, hala nola, Espainiako erregearen argazki batekin egindako disko azala. Hor erregeak proposatutako disko baterako abestien izenak aurki ditzakegu, adibidez: *Goodbye my brother*, *Franco's love* eta *Elephants & Prostitutes*.

DESDE EL ABISMO ERAKUSKETA

GASTEIZKO ZULOA IRUDIA
LIBURU-DENDA

IRAILAREN 18TIK
URRIAREN 24RA ARTE

Cthuluren collageekin batera, logotipo eta esaldi motz, baina esanguratsuek apaintzen dituzte Korreria kaleko liburu dendako ganbarako hormak. "Normalaz" azpiko errealtate berri honen irakurketa ezberdin eta kitzikatzaileak ageri dira haien irudi eta marrazkietan eta egunerokotasunaren zentzugabekeriaren inguruan barre egiteko aukera paregabea ematen dute.

Atzo amildegia ertzaren bazterrean geunden, eta gaur jada amildegia den zulo beltzean barneratuta gaude. Bikote misteriotso bezain xelebre honen proposamena ez da txarra pentsaezina zen egoera berri honi aurre egiteko. Umore beltzaren bidez gizatasunaren burugabekeriak barre egiteko tarte eskaintzen dute. Gizakion existentzia patetikoa eramangarriagoa egiteko proposamena. Bai, patetikoak baikara. ●



Hitz gezidunak

ESPARTZUA ANARI MIRA- GARRIAK		ZAPORE GAZIA ETA GEZA BATERA DITUENA NEONA		KOKAINA		KIROL MOTA ELEBERRIA		LEHIAKETA NAFARROAKO UDALERRIA		INGURU NAFARROAKO HERRIA	
PERTSO- NAIAREN ABIZENA DAUKA						SASI LABORANTZA TRESNA					
		IKUSI (LA- BURDURA) ITOTZEN DUENA			102 ERROMATAR ZENBAKIZ LARRE, ZELAI	SEI KONTI- NENTEETAKO BAT ARMAZ HORNITU					
KIGALIKO BURDINAZKO LOKARRI								GAILUR, TONTOR KILIMA			
				HEGAZKIN ERRATZ					LEHEN MU- SIKA NOTA EDATEKO BEHARRA		
SAGAR ZUKUAZ LORTZEN DEN EDARIA	OZENKI IRRIBERA, JOSTARIA				LAZTANA, KUTTUNA ERORITAKO HOSTOEN MULTZO						UGARIA
						SALGAI BATEN ZATI BEHAR DEN BEZALA					
SEIGARREN MUSIKA NOTA ARTOAREN LOREA		PAPER LODI BI KEN BAT						PERTSO- NAIAREN IZENA AUPA, IEPA!			
					ERAIKIN BABESGARRI ATZIZKI TO- PONIMIKOA					ROENTGEN KONTSONAN- TE ERREPIKA- TUTA	
LANDARE MOTA, GARO ALDIGAIZTO						... OGIA, BIHARKO GOSIA 500					
								MALDA HAN- DIKO ALDAPA			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

					6		4	8
	7		4	5	9			
						7		
7					5	9		
1				3				7
	8	2						6
		1						
			6	8	4		3	
4	6	3						

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Itsusia, ezaina.
2. Oinarrizko jangaiak.
3. Irmo, sendo.
4. Kaskar, zarpail.
5. Ados.

EBAZPENAK

1. MOTZA
2. OGIAK
3. TINKO
4. ZAKAR
5. AKORT

3	9	5	7	1	6	2	4	8
2	7	8	4	5	6	1	3	9
6	1	4	8	2	3	7	5	9
7	4	3	1	6	8	5	9	2
1	5	6	9	3	2	4	8	7
9	8	2	5	4	7	3	1	6
8	3	1	2	9	5	6	7	4
5	2	7	6	8	4	9	3	1
4	6	9	3	7	1	8	2	5

V	A	K	P	I	D	V	Z	T	I	V	G
O	I	R	U	V	G	E	Z	T	V	R	I
R			E	R	N	B	U	B	V	R	B
A	N	A	I	O	T	A	R	K	A	V	L
N	I	G	I	L	A	V	O	D	R	V	G
	A		T	E	A	I	V	M	N	E	Z
O	D	O	K	R	I	V	A	V	E	T	E
N	I	A	I	A	R	I	G	V	K	I	K
A	V	I	K	A	F	V	C	K	I	U	D
A	R	H	A	L				O	Z	E	M
V	L	B	E	L	O	N		K	V	N	V
B	L	G						G	Z		

Adelaide Darraspe

MARTXUKA OSTATUAREN
SORTZAILE



HEGAN, AMILDU GABE

Egonkortasuna bermatua ukateak ezin negona sortzen dio, eta artisten gisan, egoera berri zein ezberdinen aitzinean handitu egiten da. Denbora batez buuruan landurikoa gauzatzeko ausardia izan ohi du. Noria batean bizitzearen sentsazioak erakartzen du. Martxuka espazioaz gain Erlaitz eskola alternatiboan, LarunKoop taldean, edota Eugène Green zine zuzendariaren *Atarrabi* eta *Mikelats* filmean parte hartu du berriki lapurtarrak. Donostiako Zinemaldian estreinatu dute gainera. Lo noiz egiten duen galdeturik, “ez dakit” erantzun digu irribarrez. Hori ez baitzaio itzaltzen egoera zaila izanik ere.

“Hemen sartzen denak, badaki zer babesten ari den”

Donibane Lohitzunen trenetik jaitsi, bidea gurutzatu eta hortxe duzu Martxuka ostatua, Adelaide Darraspe (Donibane Lohitzune, 1985) urruñarrak sortua. Quebecen bizi zela ezagutu zituen artisauen lanak saltzen zituzten kafetegi edota teteriak, eta hari horretatik tiraka hutsune bat betetzeko asmoz egin zuen apustua. Dena ongi zihoan, COVID-19a iritsi zen arte. Aurrera egitea lortu dute, eta negu beltzean dute jarria itxaropena. Txokolate beroaren bueltan edota *brunch* eder bat gozatuaz bertaratzeraz gonbidatu gaitu. Martxuka murtxikatzeraz.

 AITZIBER ZAPIRAIN  IRANTZU PASTOR

Zer da Martxuka?

Ahizpak esaten zidan beste gisan bizitzeko gogoia zuela, aldaketa beharra sentitzen zuela, eta nik euskal artisautza saltzeko aukera ematen zuen kafetegi edota teteria bat sortzeko ideia bota nion. Ahizpari proposatu niona, neuk garatu nuen azkenean, kar, kar, kar! Oso proiektu ttikiarekin hasi nintzen Urruñan. Hutsune bat sumatu nuen eta betetzeko xedea otu zitzaidan. Tokiko produktu artisauak kontzienteki kontsumitzeak dakarren plazera zer den erakutsi nahi nion jendeari.

Nondik ideia?

Asko bidaiatu dut. Besteak beste, zazpi urtez bizi izan nintzen Quebecen. Han horrelako gune asko ezagutu nituen. Oso erosoak, kuttunak. Izugarria zen halako leku batean orduak pasatzeari irakurtzen, lanean, kafe bat hartzen... Euskal Herrira itzuli nintzeanean, ez zegoen halakorik. Eta orain ere gutxi. Quebec hirian erosi nuen lehen aldiz eskuz eginiko kamiseta bat. Txartel bat zuen, egileak berak egin. Izenarekin, prezioarekin, erabiltako materialaren inguruko informa-

zioarekin. Hura izan zen saltoki handietatik at erosi nuen lehen arropa. Inflexio puntu garrantzitsua izan zen niretzako erosketa hura, poliki-poliki kontzientzia hartzen hasi bainintzen eta gaur egun, esan dezaket, ez zaidala batere interesatzen ohiko arropa industria. Ez edukia bera, eta are gutxiago horren gibelenean dagoena. Beraz horrela sortu zen Martxuka.

Gaur egun Donibane Lohitzunen dago Martxuka, eta lokala lau aldiz handiagoa da.

Urruñako lokalean nengoela, langile bakarra nintzen eta dena nire gain zegoen. Asteaz sei egunez zabalitzen nuen eta libratzen nuen egunean erosketak egin behar izaten nituen. Gustura ari nintzen baina zerbait aldatu beharra nuela sentitzen nuen. Itxi ala garatu, hori nuen buruan. Aldaketarako aukera sortu zenean, apustua egitea erabaki nuen. Handiagoa da egungo lokala, honek ere denbora asko eskatzen dit, baina eramangarriagoa da niretzako, gainera orain taldean lan egiten dugu. Lau emakume ari gara lanean. Erronka handia izan zen niretzako Urruñan.



"TOKIKO PRODUKTU ARTISAUAK KONTZIENTEKEI KONTSUMITZEAK DAKARREN PLAZERA ZER DEN ERAKUTSI NAHI NION JENDEARI".

ko lokalean lortu genuen giro estetiko mantentzea. Leku goxoa eraiki nahi nuen, jendearentzat kuttuna, une goxoak pasatzeko bakarka, lagunekin zein familiar. Mahai, apal, aulki... ikusten den oro neuk diseinatu da eta familiarekin erai ki dut. Bakarrak dira, ez dago parekorik eta horrek ere ematen dio nortasun berezia proiektuari. Saltoki handietan erosi baino, aukera ukanez gero, nahiago dut neuk pentsatu eta egin.

Euskal Herriko artisauen lanen salmenta, jatetxe eta kafetegi eskaintzarekin osatzen duzue.

Jatetxe izaera Donibanen eskuratu genuen. Larunbatetan izan ezik, egunero eskaintzen dugu bazkaria eguerdian. Egunero aldatzen dugu menua eta laupabost plater ezberdin proposatzen ditugu. Hori dena antolatu eta pentsatzeak lan handia ematen du. Tokiko merkatari eta laborariei erosten dizkiegu produktuak. Oso erraza da gaur egun urrats hori ematea. Hautua egin behar da eta aurrera. Kalitateari begiratu behar diogu.

Igandeak dira gure egun izarrak. Eskaintzen ditugun *brunchak* ezagunak bilakatu dira eta oso pozik gaude horrekin. Giro polita sortzen da.

Tren geltoki aitzinean egoteak turistak erakar ditzake agian. Baina lortu duzue eguneroko bezeroak egitea?

Bai eta beharrik. Izan ere, turista batek zerbait puntuala hartuko du, trena edo autobusa etorri bitarte. Gainontzean hiri erdian sartuko dira, edota hondartzako edozein ostatutan. Ongi etorriak dira gura, baina guk tokiko jendea etortzearen aldeko apustua egin dugu hasieratik. Hemen sartzen denak badaki zer babesten ari den.

Donibandarrekin oso harrera ona egin diote egitasmoari. Urruñar asko ere etortzen da. Hendaiatik, Azkainetik ere ez dira eskas bezeroak. Beren sorkuntzak hemen salgai jartzen dituzten sortzaile gehienak ere lapurtarrak dira.

Artisauak aipaturik, azokak antolatu ohi dituzue igandero.

Urruñan ekin genion horri, eta hona heldu orduko udalarekin jarri ginen harremanetan, berdina egiteko aukerarik ote zegoen jakiteko. Bertan bazuten gure berri eta bidea erraztu ziguten Donibanen ere azokak antolatu ahal izateko. Hala, uztailaz geroztik igandero egun osoko merkatuak antolatzen ditugu hiri erdian.

Ordea, egoera ez da erraza COVID-19a tarteko.

Bai, oso zaila da. Betirako itxi beharko genuela pentsatu nuen une batez. Oroitzean, oraindik ere hunkitu egiten naiz. Berriz ireki beharra ere, baldintza gogor hauekin, ez zen erraza izan. Baina martxa hartu diogu. Itxialdi garaian ohartu nintzen jatetxe asko aurrez prestatutako janaria saltzen hasi zela. Hasiera batean ez nion zentzu askorik ikusten, ez baitzen premiazkoa. Baina egiten hasi nintzen eta horri esker alokairua ordaindu ahal izan dugu. Mailegua eskatu behar izan dugu, alokairua garestitu baitzigun jabeak.

Hemen lau emakumek egiten dugu lana. Giro onean, konfiantza handiarekin eta elkartasunez. Udazkena eta negua ongi joan daitezen lan egiteko apustua egin dugu lauok. Horrela ezean, ez dakit zenbat iraungo duen Martxukak. Baina tinko ari gara lanean eta lortuko dugula esango nuke.

Zer kontsumituko zenuke zuk Martxukan?

Nik tea, gazta tarta edota igandeetako *bruncha*. Aukerarik ez da eskas, kar kar kar! ●



Unai Etxeberria ordezkatzeko Enrich eta Luna fitxatuko ditu Granadak



Granada futbol klubak, "Altsasukoak aske!" kamiseta erakusteagatik Unai Etxeberria jokalaria taldetik bidali ostean, Sergi Enrich eta Antonio Luna fitxatzea erabaki du. "Etxeberriaren hutsunea betetzeko, futboleko ez ezik herrigintzan ere trebatuak diren jokalaria fitxatu nahi genituen", azaldu du Granadako presidenteak. "Salva Ballesta, Ruben Castro eta Roman Zozulya ustezko putonazia ere zerrendan genituen, baina azkenean bi hauek kontratatu ditugu. Aurki baz-

kide kanpaina jarriko dugu abian, eta jokariok arte eszenikoetan duten esperientzia baliagarria izan daiteke spot fresko eta birala grabatzeko, gainerako aktoreen oniritziarekin ala gabe, horrek bost". Granadako kirol prentsak futbolarietako klubari egingo dioten ekarpena nabarmendu duen bitartean, gipuzkoar kazetariak jada hasiak dira esaten ba agian duela lau urte Enrich apur bat pasa zela eta txor txor txor, ahaztuta-edo "kirolarien bizitza pribatua, pribatua dela". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Apurtuko dela ziur da



Iya-iya ilko zaitu



@ANESTRAAT



Zure lehengusuak haserrea adierazi du, Twitterren negazionisten kontra jo eta su aritu ondoren ez diotelako Medikuntzako Nobel Saria eman

Twitterren negazionista guztiekin eztabaidatzen aritzen den zure lehengusuak azaldu du oso haserre dagoela Suediako Akademiarekin, Medikuntzako Nobel Saria eman ez diotelako. "COVID-19aren kontu hau hasi zenetik ZIENTZIAren zabalpenaren alde egin dudan lan guztia eta gero, zein sarituko eta Hepatitis C bi-

rusa aurkitu zutenak. Nori inporta zaio birus hori orain?", esplikatu du. Protestak oihartzun zabala izan du sare sozialetan zure lehengusuak dauzkan 72 jarraitzaileen artean eta horietako zenbait konspirazioaz hitz egiten hasi dira, 64 jarraitzaile dauzkan Egiaren Aldeko Esnatuak kolektiboaren Twitter kontuak "magufo" deitu dien arte. ●

Jakoba Errekondoren liburu berria

Etxeko landareak



Landareak etxeko poza dira. Ongi zaintzen dituenak bizitzaren edertasuna jasotzen du opari. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, landare bakoitza nola ureztatu, ongarri naturalak nola egin, haziz doan ahala nola birlandatu... maite dugun landare hori nola ugaltu ere ikasiko dugu. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honetan deskubrituko dituzu bakoitzaren jatorria, beharrak eta gustuak. Bizitzaren ederra loratu dadila!



25€

Orri kop.: 248

EROSTEKO

argia.eus/azoka
9433 7 15 45

 **ARGIA**
www.argia.eus

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus



Bizitzarako agenda berezia dugu honakoa, norberaren egunerokoa ilargiarekin eta lurrarekin uztartzeko erraminta baita. Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikastez gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak, , gure bizitzako hitzorduak, egin beharreko lanak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak. Eta aldi berean, agendan irakurri ahalko dugu ilargiaren arabera aste bakoitzean lurra nola landu: zer erein, zer landatu, nola inausi, nola tratatu, zer uzta jaso, nola txertatu...

BARATZEA
BASOA
LORE BARATZEA
FRUITU BARATZEA



Ilargia eta landareak 2021

AGENDA

14€

Jakoba Errekondo
Antton Olariaga

EROSTEKO
argia.eus/azoka
943 37 15 45



ARGIA

BIZI BARATZEA